

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

**2.- LURRALDEAREN SINOPSISIA.**

Pasaiaiko udalerrria Donostia-San Sebastián Eskualde Egituraren baitan dago integratuta. Honen barruan, Donostia eta Errenteria bitartean aurkitzen da kokatua, Lurralde Antolaketa-ko Zuzenbideek Area Urbano Integratzat jotzen duten jarraipen urbanoan hain zuzen.

1991ko Zentsuaren arabera Pasaian bizi ziren 18.302 biztanleak Area Urbanoak urte horretan zeuzkan 245.215 biztanleen %7,5 ziren orduan. Horrekin, udalerrriaren batz besteko dentsitatea 1.619,4 biztanlekoa zen km<sup>2</sup>-ko, Eskualde Egituraren batz bestekoa baino aski altuagoa bera (1000 biz./km<sup>2</sup> g.g.b.) baina parekoa Area Urbano Integratuaren aldean.

Udalerrriaren azalera, Badia ere barne hartuz bere bokaletik (85,5 Ha.) 1.227,1 Ha-koa da. Mendebalde eta Hegoaldetik Donostiarekin egiten du muga, Ekialdetik Hondarribia eta Lezorekin, eta Hegomendebaldetik Errenteriarekin.

Ikuspegi fisikotik begiratuta, bete-betean ditu Oiartzun ibaiaren arro isurlearen ezaugarriak, bertan baitago lekutua. Jaizkibel eta Uliako mendi lerroak barne-bailara itxiz eratzen duen pantaila fisikoa batetik, eta arroaren hondo natural gisara ageri den badia bera bestetik, dira udalerrriaren baldintzakizun fisiko nagusiak. Tertiarioko materialez osatuak diren Jaizkibel eta Uliako mendietako kotarik altuenetan hasi (543 m. Jaizkibel) eta kotarik baxuenekoak diren portuko eremura eta Antxoko barrutira -kuaternarioko materialez eratua den barrutira- iritsi arte, mazela aldapatsuak nagusi diren paisaia ageri da, lurrazaleko eskorreniaz modelaturiko zeharkako ibarbideek artikulatzen dutela.

Ikuspuntu hidrografikotik begiratuta, bi arro isurle desberdin daudela azpimarratu beharra dago. Alde batetik, Jaizkibel eta Uliako ipar mazelen artoa dugu, itsasora zuzenean isuritzen duena, eta bestetik, Oiartzun ibaiaren arro isurlea, udalerrriaren gainerakoa hartzen duena. Lurrazaletik dihoazen bi ur-korronte hauek ez dute aparteko emaririk agertzen, eta azken urteotan benetako kloaka bihurtu dira hiri eta industrien ur zikinen zuzeneko isurketa dela eta.

Klimari dagokionez, Ozeaniar klima jasotzen du zonalde honek, tenperatura ertainekin eta urtaro lehorrik gabe, urte batetik bestera gorabehera plubiometriko haundiak izaten dituelarik.

Balore plubiometrikoak oso altuak dira. Urteko batz bestekoa 1.700 mm.-koa izaten da arroaren mendebaldeko muturrean (Herrera, Miracruz Gaina), eta 2.000-2.3000 mm.-koa Oiartzun-Molinao zonaldean eta arearen hondo menditsuan.

Hilabeteak hartuta bi maximo plubiometriko antzematen dira eurien banaketan, garrantzitsuena neguan (azarotik otsailera), eta bigarren mailakoa udaberrian (martxotik maiatzera). Urtaro lehorrik ez dago, baina bai minimo nabarmen bat uda partean (ekaina, uztaila eta abuztuan).

Urteko batz besteko tenperatura 12,8 °C-koa izaten da, muturrekoak izanik 6,7 gradutakoa urtarrilean eta 18,5 gradutakoa abuztuan, urtean aldaketa termiko moderatua dagoela ageri delarik. Batz bestekoen handienak 23°C-koak izaten dira abuztuan eta baxuenak 5°C-tara iristen dira urtarrilean. Gehienezko tenperatura absolutoak 37,7°C-tara irits daitezke udan afrikar kontinenteko aire masekin bat egitean, eta gutxienezko absolutoak, 0°C ingurukoak neguan, iparretik datozen aire masen etorrera dela eta gertatzen dira.

Izozte arriskua 157 egunetan zehar agertzen da, azaroaren 12tik apirilaren 19ra bitartean hain zuzen.

Oiartzungo artoa, eta bereziki badia ingurua, oso babestua eta isolatua aurkitzen da itsas eraginaren aurka Jaizkibel-Uliako lerroak osatzen duen pantaila dela medio. Horregatik, egindako behaketa eolikoen %36,8a barealdiak dira eta uztailean, abuztuan eta irailean agertzen dira maizenik. SWko haizeak dira urtean batz besteko nagusiak (%16,6) ondoren NW-koak (%12,2) eta N-koak (%11,4) datozelarik. Gainontzeko norabideek

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

apenas dute garrantzirik ez baitira inoiz behaketen %6,1 gainditzera iristen.

Ezaugarri topografiko eta klimatikoak (plubiometria ezik) barreatze atmosferikoaren ahalmenerako eragile negatibo bihurtzen dira arroan. Barealdien eta haize leunen maiztasunak, somatutako inbertsio termikoek, lainoek eta hezetasun handiek murriztu edo ezabatu egiten dute zenbait unetan eguratsaren barreiaketa ahalmena, eta kutsaketa prozesuak larriagotu egin daitezke aldi berean eguraldi antiziklonikoak gertatu edo kutsagarrien alterazioak gehiegizko hezetasuna sortaraziz gero.

Poblamenduari dagokionez, Pasaiak oso ikuspegi trinkotua erakusten du hiru barrutitan antolatua: lehenengo biak, San Pedro-Trintxerpe eta Donibane alegia, Ulia eta Jaizkibel mendi magaletako behe aldeetan daude hurrenez hurren garatuta, eta hirugarrenak, Antxok, Molinao itsasadarrean lehortarazitako zonaldean hartzen du leku. Azken hau salbuetsita, topografia laua ageri du-ta, beste barrutiak mendi mazelak kolonizatuz izan dira garatuak hasi badiaren ertzetik beretik 75 metroko kotaraino Trintxerpen eta ertze horretatik 35-40 metroko kotaraino Donibanen.

Etxebizitza kopurua (1991ko zentsuari jarraituz) 6.500ekoa da osotara, eta hauetatik %87 dago lehen bizitegira bideratua, azken zentsaketan bigarren bizitegizat aitortu direnen portzentaia huts-hutsean geratzen delarik (%2). Okupazio maila teorikoa baxua-edo bada, 2,8 pertsona etxebizitzako, baina etxebizitza nagusiak bakarrik hartuz gero okupazio maila hori igo egiten da eta etxebizitzako 3,2 pertsonatara iristen dela ikusten dugu. Lurraldearen gainbegiratu honekin amaitzeko, azpimarratu beharrekoa da okupazio moderatu honen aldean badagoela eraikuntzen pilaketa haundi bat dentsitate ikaragarri haundiak hartzen dituena. Honen adibide bat Antxo Iparrean dugu, non dentsitatea 251,1 etxebizitzakoa baita hektareako, edota Euskadi eta Ulia Etorbidean bertan, 170 etxebizitzako dentsitatea baitute hektareako (II-1 Taula).

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

**LURRALDE EZAUGARRIEN ETA EZAUGARRI SOZIOURBANISTIKOEN LABURPENA**  
**HIRIGINTZ INTERBENTZIORAKO EREMUEN ARABERA.**

**GAURKO EGOERA**

**II-2. TAULA**

EREMUA	Azalera	Biztanleak	Familiak	ETXEBIZITZAK				Bataz besteko famili osaketa	Biztanleri Dentsitatea	Etxebizitza Dentsitatea
				Nagusiak	Sekundarioak	Betegabeak	GUZTIRA			

<b>1.01 Donibane</b>	<sup>1</sup> 63.600	942	322	315	17	55	387	2,9	148,1	60,8
<b>1.02 Bordalaborda</b>	<sup>2</sup> 24.167	132	43	43	2	3	48	3	54,62	19,86
<b>1.03 Bordaundi</b>	45.690	1.703	467	460	9	35	504	3,6	372,7	110,3
<b>1.04 Lizeoa</b>	39.116									
<b>1.05 Jaizkibel</b>	8.745.000	22	5	5			5			
<b>1.06 Larrabide</b>	27.624	25	7	7		1	8			
<b>Landa Zona</b>	261.000	36	6	6		2	8			
<b>GUZTIRA HEMEN</b>	<b>9.206.197</b>	<b>2.859</b>	<b>850</b>	<b>836</b>	<b>28</b>	<b>96</b>	<b>960</b>	<b>3,4</b>		

<b>2.01 San Pedro</b>	<sup>3</sup> 53.400	896	291	291	6	42	339	3,1	167,8	63,5
<b>2.02 Zamatete</b>	40.490	872	256	256	3	14	273	3,5	215,3	67,4
<b>2.03 Salinas</b>	42.470	1.292	437	432	8	51	491	2,9	304	115,6
<b>2.04 Pablo-Enea</b>	43.220	1.430	395	387	14	32	433	3,6	330,8	100,2
<b>2.05 Arrandegi</b>	32.536	631	190	189	3	9	201	3,3	193,9	61,7
<b>2.06 Araneder</b>	62.879	1.168	317	316	8	23	347	3,7	185,6	55,1
<b>2.07 Trintxer</b>	38.125	1.747	589	579	19	75	673	2,9	472,3	177,5
<b>2.08 Azkuene</b>	47.412	2.452	714	711	13	87	811	3,4	517,4	169,4
<b>2.09 Azkuen. Goia</b>	10.400	122	37	37	4	8	49	3,3	117,3	47,1
<b>2.10 Ondartxo 01</b>	97.040									
<b>2.11 Ondartxo 02</b>	68.800									
<b>2.12 Trintxer Goia</b>	69.850	22	9	9	0	15	24			
<b>2.13 Ulia</b>	740.600	5	2	2			2			
<b>2.14 Landa Zona</b>	138.000			2			2			
<b>GUZTIRA HEMEN</b>	<b>1.484.682</b>	<b>10.637</b>	<b>3.237</b>	<b>3.211</b>	<b>78</b>	<b>356</b>	<b>3.645</b>	<b>3,3</b>		

<sup>1</sup> 21.800 m<sup>2</sup> amarraleku tradizional

<sup>2</sup> 8.350 m<sup>2</sup> amarraleku tradizional

<sup>3</sup> 4.224 m<sup>2</sup> amarraleku tradizional

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

3.01 Antxo Iparra	71.440	4.604	1.550	1.529	25	240	1.794	3	655,9	251,1
3.02 Antxo Hegoa	46.284					1	1			
3.03 Molinao Itsa.	24.736	187	63	63	3	20	86	3	75,6	34,7
<b>GUZTIRA HEMEN</b>	<b>142.460</b>	<b>4.791</b>	<b>1.613</b>	<b>1.592</b>	<b>28</b>	<b>261</b>	<b>1.881</b>	<b>3</b>	<b>342,1</b>	<b>132</b>

4.01 Askorreta	7.320									
4.02 S. Pedro-Herrera Kaia	39.720									
4.03 Herrera 01	36.800									
4.04 Herrera 02	59.760	54	15	14			14	3,6		
4.05 Herrera-Antxo Kaia	247.250									
4.06 Termika	10.387									
4.07 Untziola	28.200									
4.08 Bortalaborda 02	52.075									
<b>GUZTIRA HEMEN</b>	<b>481.592</b>	<b>54</b>	<b>15</b>	<b>14</b>			<b>14</b>	<b>3,6</b>		

KOMU. SIST. OR.	100.039									
-----------------	---------	--	--	--	--	--	--	--	--	--

<b>GUZTIRA</b>	<b>11.415510</b>	<b>18.302</b>	<b>5.715</b>	<b>5.653</b>	<b>134</b>	<b>713</b>	<b>6.500</b>	<b>3,2</b>	<b>16</b>	<b>5,7</b>
----------------	------------------	---------------	--------------	--------------	------------	------------	--------------	------------	-----------	------------

\* Badiaren ur gainazala 855.722 m<sup>2</sup>-koa da. Azalera honi San Pedro, Donibane eta Bortalaborda 1 Eremuen barruan sartu diren "Amarraleku tradizionalen zonaldeak" gehitu beharko litzaizkioke, bai eta Bortalaborda 2 Eremuan sartu eta proiektaturik dagoen Donibane kai berriaren azalera ere.

Iturria: UDAL KARTOGRAFIA, 1991KO ZENTSUAKE.

Geuk egina.

### **3.- DEMOGRAFIAREN ANALISIA**

#### **3.1 BIZTANLERIAREN BANAKETA ETA DENTSITATEA.**

1991ko Zentsuaren arabera, Pasaiako udalerriak 18.302 biztanle zituen orduan. Kopuru honek %2,7 egiten zuen Gipuzkoako Lurralde Historikoaren biztanleria osoa hartuta, %5,9 Donostialdeakoan eta %25 Oarsoaldean (Errenteria, Oiartzun, Lezo eta Pasaian).

Biztanleen %58 San Pedro-Trintxerpen zeuden zentsatuak, Antxon eta Donibanen zentsatutakoak, hurrenez hurren, %26,5 eta %15,5 ziren bitartean (II-2. Taula).

Udalerriko populazioaren batz besteko dentsitatea 1.619,4 biztanlekoa da Km<sup>2</sup>-ko (16,19 Bizt./Ha) (II-2. Taula); baina dentsitate hori itxurazkoa da soilik, populazioaren kontzentrazio maila oso handia da eta. Area urbanoek udalerraren azalera osoaren %5,3 baino ez dute hartzen, eta, aldiz, lurzoru urbanoa bakarrik hartzen badugu bertako populazioaren dentsitatea 30.020,5 biztanlekoa izatera iristen da km<sup>2</sup>-ko (300,2 Bizt./Ha). Indize hauek, askoz erreagoak direlarik, garbi uzten dute agerian zein den udalerraren arazorik larrienetako bat: dentsitate handiak eta oso espazio libre gutxi.

Azterketaren esparruari xehetasun gehiago bilatzen badiogu (II-2. taula) eta bizitegi-erabilerririk ez duten area urbanoak alde batera uzten, hortxe ikusten dugu Antxo Iparra bezalako bizitegi-eremua kopuru susmagaitzetara iristen dela, bertako dentsitateek nabarmen bikoizten dutelako adierazitako azken batz bestekoa 655,9 biztanleetara iritsiz Hektareako, eta azpian oso ratio purtzilak ere izkutatzen dituela, biztanle bakoitzeko dagoen espazio libre zertxobait kualifikatua 0,8 m<sup>2</sup>-koa izateak frogatzen duenez.

Lurzoru urbanoaren gaineko dentsitatea hobeto egokitzen zaio batz bestekoari San Pedro-Trintxerpen eta Donibanen, 289,2 eta 268,8 biztanle emanez hurrenez hurren hektareako. Espazio libre kualifikatuen gabezia arinduta geratzen da nolabait portu barruko hainbat zonari ematen zaion erabilera ludikoarekin eta puntetako pasealekuekin.

Azken indize hauek, nahiz eta Antxorako aldagai berberak erabiliz atereak izan, arreta handiz hartu behar dira aintzakotzat, zeren lurzoria okupatzeko erak eta bertako topografiak ponderatuak izan ez diren hainbat alderdi negatibo baitakarte berekin. Bilbe urbanoa garatzen deneko malda aldapsuek behartu egiten dute, izan ere, zirrikitu antzeko espazio libreak uztera, espazio libreak bestalde, dentsitatea nabarmenki jaitsiarazten dutenak eta, nekez har ditzakegunak, aitzitik, espazio libre kualifikatutzat. Nolanahi ere, Azkuene-Ulia, Euskadi Etorbidea eta Bordaundi bezalako area urbanoak, hurrenez hurren 517, 472 eta 372,7 biztanle dutenak hektareako, dentsitate handieneko guneak dira udalerrian.

#### **3.2 BIZTANLERIAREN BILAKAERA.**

Udalerraren biztanleriaren bilakaera aztertzerakoan inguruko udalerrietan izandakoa hartu eta beronekin parekatu dugu lehen-lehenik (1. grafikoa). Hiru fase aski desberdinu antzeman ditugu 1900 eta 1991 urte bitartean, eta hirurak sei udalerriren multzoan (Errenteria, Pasaia, Lezo, Donostia, Hondarribia eta Oiartzun), eta seguraski baita Donostialdea osoan ere, ematen dira.

1950. urtera arte, eta hazkunde etengabea eta erregularra dela medio, sei udalerririk lehen gorakada bat ezagutzen dute. Horietako bakoitzaren abiapuntu-zifratzat 100 oinarria hartzen badugu (1900eko biztanleria), Hondarribia eta Oiartzun bakarrik mantentzen dira %200 azpitik (11.773 biztanle) (%169,4 eta %135 hurrenez hurren). Pasaia da, %412,2ko indizera iritsiz (II-3.1 taula)) gehien hazten den udalerria, 50 urte horietan zehar 1900eko biztanleria (2.856 lagun) laukoiztu zuela antzematen delarik. Hazkunde honen islada urbanoa Euskadi Etorbideko eta Arrandegi kaleko lehen asentamenduetan, eta bereziki Antxoko barrutiaren garapen urbanoan aurkitzen dugu.

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

1950 eta 1975 urte bitartean erabateko desberdintasuna hasten da gertatzen inguruko udalerrien artean. Hondarribia eta Oiartzunen hazkunde erritmoak motela eta etengabea jarraitzen du izaten, nahiz eta azken hau ez den %200eko indizea gainditzera iristen (%253 eta %192,6 hurrenez hurren) (II-3.1 taula).

Donostia eta Lezok, azken hau hazkunde azkarragoa duelarik, erritmo moderatua mantentzen dute eta 1975. urte amaierako mugan biztanleria laukoiztea lortzen dute (%411,7 eta %419,7 hurrenez hurren). Errenteria eta Pasaia, azkenik, ondorio urbanistiko tamalgarriak ekarriko dituen berebiziko hazkundera ezagutzen dute epealdi honetan.

**DINAMIKA DEMOGRAFIKOA 1900-1991****II-3.1. TAULA**

		HONDARRIBIA	LEZO	OIARTZUN	ERRETERIA	DONOSTIA	PASAIA
1900	BIZTANLEAK	4.345	1.193	3.960	4.081	41.200	2.856
	INDIZEA	100	100	100	100	100	100
1910	BIZTANLEAK	5.175	1.263	4.268	5.527	53.090	3.571
	INDIZEA	119,1	105,8	107,7	135,4	128,8	125
1920	BIZTANLEAK	5.570	1.423	4.200	6.956	67.291	4.772
	INDIZEA	128,1	119,2	106	170,4	163,3	167
1930	BIZTANLEAK	6.181	2.062	4.378	8.973	85.664	7.519
	INDIZEA	142,2	172,8	110,5	219,8	207,9	263,2
1940	BIZTANLEAK	6.994	2.143	5.579	10.106	105.775	10.024
	INDIZEA	161	179,6	140,8	247,6	256,7	350,9
1950	BIZTANLEAK	7.363	2.447	5.773	12.704	111.776	11.773
	INDIZEA	169,4	205,1	145,7	311,3	271,3	412,2
1960	BIZTANLEAK	8.501	3.290	5.346	18.642	135.149	15.036
	INDIZEA	195,6	275,7	135	456,8	328	526,4
1970	BIZTANLEAK	10.471	4.057	6.704	34.369	165.829	21.130
	INDIZEA	240,9	340	169,3	842,2	402,5	739,8
1975	BIZTANLEAK	10.995	5.008	7.627	46.329	169.622	22.501
	INDIZEA	253	419,7	192,6	1.135,2	411,7	787,8
1981	BIZTANLEAK	11.276	5.372	7.664	45.789	175.576	20.709
	INDIZEA	259,5	450,2	193,5	1.122	426,1	725
1986	BIZTANLEAK	13.182	5.614	8.073	43.258	180.064	19.552
	INDIZEA	303,3	470	203,8	1.059,9	437	684,5
1991	BIZTANLEAK	13.531	5.309	8.413	41.613	171.625+3.216 <sup>4</sup>	18.302
	INDIZEA	311,4	445	212,4	1.019,6	424,3	640,8

Iturria: Udal Zentsuak eta Erroldak - E.I.N.

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

---

**Geuk egina.**

---

<sup>4</sup> Donostia eta Astigarraga

Errenteria %1.135,2ko indizera iristen da (46.329 biztanle), 1900ean zeukan biztanleria hamaika aldiz haunditzea lortuz eta ia 4 aldiz haundiagotuz 1950. urtekoa. 1950 eta 1975 urte bitartean izan duen urteko hazkunde konstantea %5,31koa izan da beraz (II-3.2 taula).

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

**URTEKO HAZKUNDE KONSTANTEA - EPEALDI LUZEAK -****II-3.2 TAULA**

	1900-1950	1950-1975	1975-1991
HONDARRIBIA	1,06	1,62	1,39
LEZO	1,44	2,91	0,38
OIARTZUN	0,75	1,12	0,66
ERRENERIA	2,29	5,31	-0,71
DONOSTIA	2,01	1,68	0,20
PASAIA	2,87	2,62	-1,36

**Iturria: Udal Zentsuak eta Erroldak. D.P.B. - Foru Aldundia.****Geuk egina.**

1950 eta 1975 urte bitartean osatu egin zen Pasaian Antxoko bilbe urbanoa, eta behin betiko konfigurazioa hartu zuten Trintxerpek eta Donibaneko Bordaundi eta Bordalaborda zonaldeek. 1975. urte amaierako muga %787,8ko indizea iritxi zuen (22.501 biztanle), 1900eko biztanleriaren zortzi halakoa eginez.; 25 urte horietako urteko hazkunde konstantea 2,62koa izan zen (II-3.2 taula). Udalerria gehien hazi zen epealdia 60 eta 70eko hamarkadetan gertatu zen, batz bestea 610 biztanle irabazi baitzituen urteko, %3,46 indizea erdietsiz urteko hazkunde konstantean.

Pasaiako 1975eko populazioaren osaketa jaiolekuaren arabera aztertzen badugu, udalerrian bizi ziren 22.501 pertsonetatik 4.973 lagun (%22,1) bakarrik zirela bertan jaiok ikusten dugu. Gainontzekoak, hau da, %77,9, beste tokiren batean ziren sortuak eta, beraz, 1975. urtera arte gertaturiko inmigrazio uholde handian etorriak. Urte horretako populazioaren %40,2 Euskal Herritik kanpo jaiok izan zen, talde nagusia osatuz, eta honen jarraian, Gipuzkoako beste lekuetan jaiotako etorkinak agertzen dira, %35,5arekin hain zuzen (II-3.2).

**BIZTANLERIAREN BANAKETAREN BILAKAERA JAIOLEKUAREN ARABERA****II-3.3 TAULA**



## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

JAIOLEKUA	1975		1991		BEHERAKADA	
	BIZTANLEAK	%	BIZTANLEAK	%	BIZTANLEAK	%
PASAIA	4.973	22,1	4.507	25,1	-386	-7,8
ESKUALDEA	7.988	35,5	6.789	37,1	-534	-6,7
GIPUZKOAN ZEHAR			665	3,6		
EUSKADIN ZEHAR	495	2,2	371	2	-124	-25
EUSKADITIK KANPO	9.045	40,2	5.890	32,2	-3.155	-34,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>22.501</b>	<b>100</b>	<b>18.302</b>	<b>100</b>	<b>-4.199</b>	<b>-18,6</b>

**Iturria: Udal Zentsuak eta Erroldak. D.P.B. - Foru Diputazioa.****Geuk egina.**

1975etik 1991ra bitartean eutsi egiten zaio jada aurreko epealdian udalerrien artean somatutako desberdintasunari, baina Erreterriak eta Pasaian joera zeharo ezberdin bat hartzen dute.

Oiartzunek hazkunde motel eta jarraituari eusten dio eta %0,66ko hazkunde konstantea egiten du urteko, 1986. urtea iritsi arte ez duelarik, 1900eko biztanleria hartuta, %200eko muga gainditzen. Hondarriak ere hazkunde motela mantentzen du orohar, 1981 eta 1986 urte bitartean gorakada puntual garrantzitsu bat ezagutzen badu ere. Aztertutako azken 15 urte hauetan %1,39koa da bere batuz besteko urteko hazkunde metakorra (II-3.2 taula). Nolanahi dela ere, bi udalerrri hauen ezaugarriarik esanguratsuen zera da, populazioaren goranzko joeran ez dutela inoiz inflesio-punturik erakusten, eta hau ez da gertatzen ez analisaturiko beste udalerrietan ez eta Donostialdearen gainontzekoan ere.

Horrela, bada, Lezo eta Donostiak goranzko joera leun bat dute 1986. urtera arte (beroiak urteko hazkunde konstantea 0,8 eta 0,5ekoa da hurrenez hurren), baina une horretan inflesio-puntu bat antzematen zaie eta hortxe hasten da atzeranzko epealdi bat non, urteko hazkunde konstantea %-1,1 eta %-0,6koa delarik, populazioa behera egiten hasten baita erritmo motelean (II-3.2 taula). Guztiarekin ere, eta 15 urte hauek hartuta, bi udalerririk urteko hazkunde tasa positibo batekin amaitzen dute aztertutako epealdi hau, 0,38 eta 0,20 emanez hain zuzen (II-3.2 taula).

Erreterria eta Pasaia dira sei udalerritan beheranzko joera nabarmenena dutenak. 1975ean zuten hazkunde indizea %1.135,2 eta %787,8koa baldin bazen, 1991ean %1.019,6 eta %640,8koa izatera pasatzen da indize hori. Beherakada latz honekin 1975 eta 1991 urte bitartean gertatzen den galera absolutoa 4.776 eta 4.199 biztanletakoa da hurrenez hurren.

Ikus dezakegunez, Pasaia da beherakada erritmorik bortitza eta erregularrena izan duen udalerrria, 1975az geroztik ia jarraitua izan baita joera hori. 15 urte horietan izandako urteko gutxitze konstantearen batuz besteko tasak (%-1,36koa) bikoiztu egin du ia Erreterriak ematen duena (%-0,71) (II-3.2 taula).

Populazioaren jaiolekuaren arabera gorago diseinatu dugun sailkapenak 1975. urteari buruz ematen digun argazki finkoari heltzen badiogu (II-3.3 taula) eta "Gipuzkoan zehar" jaiotako taldeari "eskualdean jaiotako" eta "lurralde historikoan zehar jaiotako" arteko aldea gehitzen, badugu hurbiltzerik atzeranzko dinamika demografiko hau eragin duen populazioaren osaketaren lehen interpretazio batera.

15 urtetako epealdi honetan izandako atzeranzko dinamika demografikoaren balantzea 1991ean eginez gero, guztira 4.199 biztanle gutxiago daudela ikusten da, hau da, % -18,6ko galera egon dela 1975eko populazioarekiko (II-3.3 taula). Baina % -18,6ko galera hau ez da talde desberdinen artean era homogeneousan eman; horrela, Gipuzkoan eta Pasaian jaiotakoak hurrenez hurren %6,7 eta %7,8 gutxiago izan baziren, Euskaditik kanpo jaiotako taldea %34,8 galtzera iritsi zen, bere populazioaren heren bat baino zertxobait gehiago.

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

Kontutan hartzen badugu Gipuzkoak %0,92 baino ez zuela galdu eta Donostialdeak %0,63 (6.286 eta 1954 biztanle hain zuzen), egiaztatu egin dezakegu Pasaia jasan dituen galera hauek Donostialdean eta Gipuzkoa barruan izandako birbanaketaren ondorio direla gehiago, eta ez hainbeste emigrazio prozesu batek edo Euskaditik kanpo jaiotako en herriratzeko pilatsu batek eragindako zer bait.

Berezko hazkunde tasak azken urteotan izan duen jaitsiera alde batera utzita, bai eta emigrazio prozesua edo sorterriratzeko ere (kasu asko behar bada zentsatze eta erroldatze prozesuak berak izkutatuak direlarik), bistakoa dirudi 80ko hamarkadaren erdialdeaz geroztik barne birbanaketa bat gertatzen ari dela, eta hainbat udalerrri, aski jendeztatuak eta arazo urbano larriak heredatu dituztenak, biztanleria galtzen ari direla antolapen hobea duten udalerrien mesedean.

Gure udalerrian garbi dago hori; talde guztietan izandako biztanleri galera absolutoarean aurrean (II-3.3 taula), Pasaian jaiotakoek eta eskualdean jaiotakoek igo egin dute portzentualki beren pisua 1991ean, Euskaditik kanpo jaio direnek, bestelako migrazio mugimendutan sartuak, 8 bat puntu galdu dituzten bitartean.

Bistakoa dirudi udal mailako dinamika demografiko bat utzi dela eta osatu den jarraipen urbanoari erantzuten dion eskualde mailako dinamika demografiko batera pasatzen ari dela -ez zitekeen bestetara izan-. Aurrikuspenak eta etorkizuneko eboluzioa eskualdeari begira egongo dira jarrita eta ez hainbeste udal aspektuei begira; etxebizitza plangintzak, kalitate urbanoaren hobekuntza eta arearen garapen ekonomikoa erabakiorrak izango dira dinamika demografikoak zein bilakaera izango duen etorkizunean eta honek udalerrri bakoitzean nola eragingo duen definitzeko.

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

**3.3 BIZTANLERIAREN EGITURA**

1991an Pasaian zentsaturik zeuden 18.302 biztanleak honela egituratzen ziren adin eta sexuen arabera ondoko taulan:

**ADIN ETA SEXUEN ARABERAKO EGITURA. 1991. URTEA****II-3.4 TAULA**

ADINA	GIZONEZKOAK	%	EMAKUMEZKOAK	%
0-4	336	1,8	310	1,7
5-9	408	2,2	361	2
10-14	651	3,6	605	3,3
15-19	849	4,6	827	4,5
20-24	912	5	845	4,6
25-29	881	4,8	791	4,3
30-34	680	3,7	595	3,3
35-39	550	3,00	515	2,8
40-44	579	3,2	578	3,1
45-49	497	2,7	573	3,1
50-54	529	2,9	544	3
55-59	635	3,5	696	3,8
60-64	532	2,9	555	3,1
65-69	393	2,2	502	2,7
70-74	252	1,4	377	2,1
75-+	279	1,5	665	3,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.963</b>	<b>49</b>	<b>9.339</b>	<b>51</b>

**Iturria: D.P.B. - Gipuzkoako Foru Aldundia.**

**Geuk egina.**

Aurreko taulako datuekin adin eta sexuen arabera diseinatzen den piramideak (2. grafikoak) oso oinarri estua erakusten digu. Honek oso jaiokuntza tasa baxua adierazten digu, nahiz eta Donostialdean eta Gipuzkoan somatutakoaren aldean (%8 inguru) parekatsua dela esan behar. Adinik txikieneko taldeak errepresentatzeko erabilitako barrek agerian uzten dutenez, gutxitze jarraitu bat izan da jaiotze kopuruaren eboluzioan.

Barrarik zabalenak hirurogeiko hamarkadan eta hirurogeita hamarrekoko hamarkadako lehen bosturtekoan jaiotakoei dagozkie. Loraldi ekonomikoak eta lanerako nahiz ugaltzeko adinean zeuden pertsonen etorrera biziak gaztetu egin zuten artean oso zaharra ez zen populazioa eta lortu ziren jaiokuntza tasek urrun uzten zuten gaurko %8 hori. 1965. urtean %25,37ko jaiokuntza tasa zuen Gipuzkoak eta 1978an %14,92ra iristen zen oraindik.

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

---

Piramidearen gainontzekoan egitura tipikoa ageri zaigu, gerra aurreko jaiotzaldi emankorra (55-59 urtekoak, 1931-1935 urte bitartean jaiotak), eta gerra garaian eta gerra ostean jaiotakoen sargune bortitza, kanpotik etorritakoekin

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

arintzen dena, erakutsiz.

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, biztanleria ez da oraindik oso zaharra, nahiz eta zahartze prozesu bortitz batean sartuta egon bete-betean.

**BIZTANLERIAREN EGITURAREN BILAKAERA ADIN TALDE ADIERAZGARRIEN ARABERA****II-3.5 TAULA**

ADINA	1975		1981		1986		1991	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%	kop.	%
0-19	8.730	38,8	7.441	35,9	5.828	29,8	4.347	23,8
20-44	7.917	35,2	6.763	32,7	6.850	35	6.926	37,8
45-64	4.887	19	4.727	22,8	4.870	24,6	4.561	24,9
65 +	1.567	7	1.778	8,6	2.067	10,6	2.468	13,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>22.501</b>	<b>100</b>	<b>20.709</b>	<b>100</b>	<b>19.552</b>	<b>100</b>	<b>18.302</b>	<b>100</b>
<b>MENPEKOTASUN TASA</b>	80		80		67		59	
<b>ZAHARTZE INDIZEA</b>	1,8		2,4		3,5		5,7	

**Iturria: Udal Zentsuak eta Erroldak. D.P.B. - Gipuzkoako Foru Aldundia. EUSTAT**

**Geuk egina.**

Ikus dezakegunez, 1975. urteaz geroztik zahartze prozesu bortitza gertatzen ari da; lehen 1,8 baldin baziren 19 urtez beherako 10 pertsonako 65 urte baino gehiago zituztenak, orain 5,7koa da indize hori; 65 urtetik gorakoen pisu portzentuala bikoiztu egiten dela esan nahi du horrek (%7 1975ean eta 13,5 1991an).

Prozesu honek kontrastatu egiten du argi eta garbi "menpekotasun estrukturalaren tasa"tik datozen datuekin, zeren eta populazioaren zahartzeak menpeko populazioa (egitura aldetik menpeko, ez sozioenonomia aldetik menpeko) hazi egiten dela pentsarazi arren, menpekotasun tasa jaitsi egiten da Pasaian, eta horrela daukagu nola lanerako adin teorikoan zeuden 100 pertsonako lehen menpeko ziren lagunak (zahar eta gazte) 80 izatetik, 59raino jaitsi diren 100 pertsona heldu bakoitzeko.

Menpekotasun estrukturalaren tasaren beherakada epealdi horretan izandako jaiokuntza beherakadarekin jarri beharra dago harremanetan, nahiz eta agian arrazoi bakarra hori ez izan. Dударik ez da 1975. urtean hasten den emigrazio joera estrukturaliki menpeko diren populazio taldeekin elikatuz joan den bitartean, egon ahal izan den inmigrazio urriak lanerako adinean dauden pertsona helduen taldeak olioztatu dituela.

3. GRAFIKOA.BIZTANLERIAREN EGITURAREN BILAKAERA ETA ERREFERENTZI ESPARRUEN EGITURAREKIKO KONPARAKETA.

Pasaiako egitura erreferentzia-esparru desberdinekin (Oarsoaldea, Donostialdea, Gipuzkoarekin) alderatuz gero, begibistan jartzen zaigu zahartze indizea haundixeagoa dela gure udalerrian beste esparruetan baino, baita helduen taldeari dagokionean ere (II-3.6 taula), heldu gazteen taldeak (22-44 urtekoak) portzentaia baxuagoa hartzen duela, eta portzentaia hori haundiagoa dela heldu zaharren taldean (45-64 urtekoan) (3. grafikoa).

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

Menpekotasun tasa apur bat txikiagoa da Pasaian, eta honek bide ematen digu lehen adierazitako ideia bat finkatzeko, alegia, badagoela eragile arrotz bat (emigrazioa) bai menpekotasun tasa eta bai sexuen araberako egitura bihurrikatzen dituena. Bilakaera demografikoari buruzko idazatian ikusi genuenez, Pasaia da populazio gehien galdu duen udalerrria; informazio hau osatu genezake orain jario migratorio horretan egitura aldetik menpeko den populazioak izan duen nagusitasunari buruzko hipotesia aurreratuz.

**BIZTANLERIAREN EGITURAREN KONPARAZIOA ERREFERENTZI ESPARRU  
DESBERDINAK HARTUTA**

**II-3.6 TAULA**

ADINA	PASAIA		OARSOALDEA		DONOSTIALDEA		GIPUZKOA	
	KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%
<b>0-19</b>	4.347	23,8	19.768	26,9	79.585	25,7	173.836	25,7
<b>20-44</b>	6.926	37,8	28.717	39	119.387	38,5	260.542	38,5
<b>45-64</b>	4.561	24,9	17.122	23,2	71.159	22,9	155.789	23
<b>65 +</b>	2.468	13,5	8.047	10,9	40.063	12,9	86.062	12,8
<b>GUZTIRA</b>	18.302	100	73.654	100	309.926	100	676.231	100

  

<b>MENPEKOTASUN TASA</b>	59	61	63	62
<b>ZAHARTZE INDIZEA</b>	5,7	4	5	4,9

**Iturria: Udal Zentsuak eta Erroldak - EUSTAT**

**Geuk egina.**

### 3.4 BIZTANLERIAREN BILAKAERARI BURUZKO AURRIKUSPENAK

Biztanleriari buruzko proiektzio bat egitea Pasaia udalerrriak gizarte, ekonomia eta lan alorrean duen egoera edukita, eginkizun korapilatsuegia iruditzen zaigu, eta espekulazio huts bihurtzeko arriskuan legoke.

1975az geroztik hasitako beheranzko joerak, gaurko krisi egoerak, biztanleria aktiboaren langabezi indize erreala %30etik gora jarri duenak, eta azkenik, oraindik behar beste azertuak izan ez diren distantzi laburreko jario migratorioek, ez dute gomendagarri egiten populazioaren egiturari buruzko proiektzio bati ekitea.

Hemendik hamar urtetara (2.003) egon daitekeen populazioaren inguruko lau estimazio egitera mugatuko gara soil-soilik, launa hipotesi desberdinetan oinarrituz horretarako.

Estimazio hauetarako 1992ko biztanleriaren bolumena erabiliko dugu abiapuntu, hau da, 1993ko urtarrilaren 1eko dataz eguneratu ondoren guztira 18.373 biztanle ematen zituen errolda. Bolumen honek zertxobait gaintzen du 1991. urtean erregistratutakoa (18.255).

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

Hori horrela izateak areago zaitzen du oraindik etorkizunerako bilakaera demografikoari buruzko interpretazio fidagarriak egiteko posibilitatea. Baliteke azken hiru urte hauek atzeranzko aldi baten amaiera izatea edo, baliteke ere egonkortasun irudikeria hutsa gertatzea besterik gabe. Nolanahi dela ere, 1975etik eta bereziki 1985etik aurrera biztanleriaren bolumenaren urtez urteko irakurketa bat eginez gero, 1992. urtea da aurreko urteko populazioarekiko hazkunde arin bat dakarren bakarra (II-3.7 taula).

**MUGIMENDU NATURALA ETA HAZKUNDEA****II-3.7 TAULA**

URTEA	JAIOZAK	HERIOTZAK	BIZTANLEAK	JAIOKUNTZA T.	HILKORTASUN T.	BEREZKO HAZKUNDEA	URTEKO HAZKUNDE TASA
1985	123	143	19.552	%6,27	%7,27	%0-1	% -077
1986	159	147	19.513				
1987	134	149	19.387				
1988	144	160	19.253				
1989	134	149	19.146				
1990	124	143	18.302				
1991	57	80	18.255				
1992	75	134	18.373				

**Iturria: Udal Zentsuak eta Erroldak -E.I.N.**

**Geuk egina.**

**1n Hipotesia:** azken urteotako berezko hazkunde tasa mantendu egiten da eta migrazio mugimenduek ez dute inolako eraginik (II-3.7 taula).

Biztanleria 1992an	B.H.	Biztanleria 2.002an	Igoera
<b>18.373</b>	<b>%0-1</b>	<b>18.189</b>	<b>- 184</b>

**2n Hipotesia:** azken 8 urteotako berezko hazkundearen erritmoa eta migrazio dinamika, urteko hazkunde tasan adieraziak, mantentzen dira.

Biztanleria 1992an	Urteko Hazkunde T.	Biztanleria 2.002an	Igoera
<b>18.373</b>	<b>%-0,77</b>	<b>17.006</b>	<b>- 1.367</b>

Lehen eta bigarren hipotesiaren artean somatzen den diferentzia hurrengo 10 urteetan gertatuko litzatekeen saldo migratorioaren berdina da: -1.183 biztanle.

**3. Hipotesia:** Pasaiako dinamikaren balizko moteltze bat aurrikusten da, bai eta honen egokitze bat ere Donostialdearen batz besteko erritmora. Donostialdea osoan 1986tik 1991ra bitartean erregistraturiko Urteko



## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

Hazkunde tasa aplikatzen zaio Pasaiari.

Biztanleria 1992an	Urteko Hazkunde T.	Biztanleria 2.002an	Igoera
<b>18.373</b>	<b>%-0,37</b>	<b>17.704</b>	<b>- 669</b>

4. **Hipotesia:** etxebizitzari eta ingurune urbanoaren birkualifikaziori buruz Hirigintz Arauen dokumentu honetan proposatzen den egitaraua aintzat hartuz gero, berau hemendik 10 urtetara nola garatzen den horixek erabakiko du gure ustez biztanleriaren geroko bilakaera.

Ingurune urbanoa birkualifikatu eta berrekipatzeko egitaraua (Pasaiak bizileku gisa izan dezakeen onarpen soziala hobetu dezakeena) albora utzi dugu eta beste bi egitarau hartu ditugu azterruna: batetik, etxebizitza berriak sortzeko egitarauak, asumigarriak ez diren espazio industrialak birkualifikatu eta bilbe urbano andeatua ordezkatzeko helburu dutenak, eta bestetik gaurko etxebizitza guneak konsolidatzeko egitarauak, Birgaitza Integralko Planen barruan sartuta horietarik asko.

\* **Etxebizitza berrietarako egitaraua.**

Exekuzioan eta epe laburrera (5 urte) exekuzioa	Epe ertainera (10 urte)	Lehentasunik gabeko
<b>529</b>	<b>431</b>	<b>265</b>

Egitarauaren lehen bi zatien exekuzioarekin 168 etxebizitza desagertzen dira, eta 131 etxebizitza lehentasunik gabeko exekuzioarekin.

\* **Dauden etxebizitzak konsolidatzeko egitaraua.**

Etxebizitzak 1991an	Ordezkapenak 10 urtetan	Konsolidatuak
<b>6.500</b>	<b>168</b>	<b>6.332</b>

\* **Etxebizitza egitarauaren balantzea.**

10 urtetako epemugan (2.002) 7.292koa litzateke etxebizitza bolumen osoa. Etxebizitzen zahartzeak berak, Birgaitze-Planetik atxekimendurik ez egoteak eta etxebizitza merkatuaren berezko dinamikak, ezinbestez pentsarazten digute okupatu gabe edo bizitegi nagusi bezala erabiliko ez diren etxebizitzen portzentaia %15ekoa izango dela Pasaian (%13koa 1991an).

Etxebizitzak 2.002an	Etxebizitza nagusiak	Etxebizitza sekundarioak eta betegabeak
<b>7.292</b>	<b>6.198</b>	<b>1.094</b>

\* **Populazioari buruzko aurrikuspenak.**

1991ko bataz besteko famili osaketa 3,2an mantentzen bada, eta etxebizitza nagusiko familia bana izango dela pentsatzen badugu, Pasaiak 19.833 biztanle izango ditu osotara.

Biztanleria 1992an	Biztanleria 2002an	Igoera absolutoa	%	Urteko hazkunde konstante teorikoaren tasa
--------------------	--------------------	------------------	---	--

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA**18.373****19.833****1.460****7,9****0,76**

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

**4.- BIZTANLERIA ETA AKTIBITATEA.****4.1 BIZTANLERIA AKTIBOA.**

1991ko Zentsuaren arabera, Pasaia udalerriaren biztanleria aktiboa (lanean, lehen enplegu bila eta lanik gabea) 7.578 pertsonakoa zen, hau da, %41,37ko aktibitate tasa zuen orduan (4. grafikoa).

1981etik aurrerako bilakaera aztertzen badugu (II-4.1 taula), aktibitate tasak zazpi puntu inguru igo dituela, nabarmenki igo ere, ikusten da. Igoera honen arrazoia, hala ere, gehiago bilatu behar da populazio galera globalean aktiboen kopuruaren gehitze gordinen baimo; azken 10 urte hauetan, izan ere, apenas irabazi ditu 400 pertsona, %5,8ko igoera ekariz, 1981eko populazio aktiboarekin konparatuta.

**AKTIBITATE TASA. 1981-1991 URTEETAKO BILAKAERA****II-4.1 TAULA**

	1981		1986		1991	
	BIZTANLEAK	%	BIZTANLEAK	%	BIZTANLEAK	%
PASAIA	7.159	34,56	7.467	38,19	7.578	41,37
OARSOALDEA	28.444	35,43	29.363	38,16	31.329	42,53
DONOSTIALDEA	115.901	36,56	122.883	38,91	133.016	42,91

**Iturria: Zentsuak eta Erroldak. D.P.B. - Diputazioa eta Eustat.**

**Geuk egina.**

Bilakaera hau Oarsoaldean (Pasaia, Lezo, Oiartzun, Errenteria) eta Donostialdean izandakoarekin alderatuz gero (9. taula) aktibitate tasak antzekoak direla eta 10 urte horietako bilakaera ere nahiko parekoa izan dela antzeman dezakegu. Hala eta guztiz ere, tasa horietara eraman duten aldagaiek, ezaugarri desberdinak dituzte hiru esparruetan. Alde batetik, biztanleriaren bolumenaren jaiste erritmoa oso desberdina izan da horietako bakoitzean. Pasaia urteko hazkunde konstantearen tasa %-0,77koa zenean 86-91 epealdian, Donostialdeak %-0,37ko tasa izaten zuen, erdia ia. Bestalde, Pasaia pertsona aktiboen kopuruak 10 urte hauetan %5,8ko igoera zuen bitartean, zifra hori %10 eta %14,7koa zen Oarsoaldean eta Donostialdean.

Aurreko kapituluaren arrazoinatzen genuen bezala, Pasaia izan duen emigratio prozesuak populazio ez aktiboan, hau da, zahar eta gazteengan (estruturalki menpeko den populazioan) eragin du gehiago, eta horregatik gertatu da aktibitate tasa igo egin dela baina aktiboen kopuruan igoera nabarmenik egon gabe.

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

---

**AKTIBITATE TASA SEXUEN ARABERA. 1981-1991 URTEETAKO BILAKAERA**

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

## II-4.2 TAULA

		1981		1986		1991	
		GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
PASAIA	BIZTANLEAK	5.429	1.730	5.108	2.359	4.954	2.624
	%	53,25	16,45	53,24	23,69	55,27	28,09
OARSOALDEA	BIZTANLEAK	21.329	7.115	20.564	8.799	20.574	10.755
	%	53,36	17,65	53,87	22,70	56,55	28,85
DONOSTIALDEA	BIZTANLEAK	81.532	34.369	81.526	41.357	82.937	50.079
	%	53,14	21	53,51	25,30	55,60	31,14

Iturria: Zentsuak eta Erroldak. D.P.B. - Diputazioa. Eustat.

## Geuk egina

Sexuen arabera aktibitate tasak jada ohizkoa den desoreka agertzen du. 1991ko Zentsuari begiratu gero, gizonezkoen %55,27k jotzen zuen bere burua aktibotzat emakumezkoen %28,09aren aurrean (10. taula). Tasa hauek 1981etik aurrera izan duten bilakaera aztertzen badugu, agerian geratzen da gizonezkoek ozta-ozta 2 puntu irabazi dituzten bitartean (%53,25 1981ean) emakumezkoek ia 12 puntutako igoera izan dutela (%16,45 1981ean). Ehunekoetan oso esanguratsua den konparaketa hori are nabarmenagoa egiten da oraindik kopuru absolutoko ikusita: gizonezkoek 500 bat aktibo galdu dituzte eta emakumezkoek 900 inguru irabazi. Hiru dira gertaera horretan bateratzen diren eragileak: batetik, azkartze bat eman da populazio egituraren zahartze prozesuan eta, logikoki, aktibo gehiago galdu dira gizonezkoen artean; bestetik, biztanle galerak egon dira, baina hauek populazio aktiboa zifra absolutotan jaitsiarazi arren, bide eman dute gizonezkoen aktibitate tasa mantendu ez ezik, baita zerbait hazteko ere; eta azkenik, gero eta joera haundiagoa izan da emakumea lan merkatara sar dadin, eta honek batipat heldu gazteenen taldean eragiten duenez, zahartze estrukturala urrun gelditzen zaie oraindik (4. taula).

## 4.2 LANEAN DIHARDUEN BIZTANLERIA AKTIBOA

## OKUPAZIO TASAK 1991

## II-4.3 TAULA

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
PASAIA	81,87	66,96	76,25
OARSOALDEA	82,63	67,41	77,40
DONOSTIALDEA	84,29	73,66	80,30

Iturria: EUSTAT

## Geuk egina.

1991ko Pasaiaiko Zentsuan 5.778 pertsona ziren "aktibo okupatutzat" jotzen zirenak, eta honek esan nahi du orduko okupazio tasa %76,25ekoa zela, eskualdeak zeukana (Oiartzun, Lezo, Errenteria eta Pasaia) baino bajuxeagoa eta aski txikiagoa Donostialdean erregistratutakoaren aldean (II-4.3 taula).

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

Sexuen arabera, desoreka agertzen zaigu berriz ere: Pasaian gizonezko aktiboen multzoak zuen okupazio tasa %81,87koa zen bitartean, emakumezkoen multzoa ia 15 puntu azpitik jartzen zen %66,96ko tasarekin (II-4.3 taula).

Desoreka bortitz hori Donostialdean bakarrik geratzen da zerbait arinduta, batzuen eta besteen arteko aldea 11 puntu eskaxetara jartzen delarik.

**OKUPAZIO TASAK IHARDUERA SEKTOREEN ARABERA**  
**PASAIA. 81-91 BILAKAERA**<sup>5</sup>

## II-4,4 TAULA

	1981	1986	1991
0 SEKTOREA	16,9	13,8	11,9
1. SEKTOREA	1,2	1,8	1,9
2. SEKTOREA	2,4	1,8	2,7
3. SEKTOREA	23,3	16,3	14,4
4. SEKTOREA	8,1	8,9	7,3
5. SEKTOREA	3,4	4,3	6,3
6. SEKTOREA	16,7	17,9	18,6
7. SEKTOREA	11,2	11,4	9,3
8. SEKTOREA	2,9	3,2	4,7
9. SEKTOREA	13,9	20,6	22,9

Iturria: EUSTAT- D.P.B. - Gipuzkoako Foru Aldundia

## Geuk egina

1981etik 1991ra bitartean okupazio tasek aktibitate sektoreen arabera izan duten bilakaerari Pasaian erreparatzen badiogu, egitura produktiboak nabarmenki jo duela zerbitzuen sektorerantz antzeman dezakegu (II-4.4 taula).

Lehen sektoreak (0 sektoreak), nekazaritza eta abelazkuntzari lotua, eta hemen arrantza sektoreari lotua batipat,

5 □ Enpresa Ihardueren Saikapen Nazionala. 1.974.

- 0 SEKTOREA: Nekazaritza, Abelazkuntza, Ehiza, Oihanlantza eta Arrantza.
- 1. SEKTOREA: Energia eta Ura.
- 2. SEKTOREA: Mineral ez energetikoen eta produktu deribatuen aterakuntza eta eraldaketa. Industria Kimikoa.
- 3. SEKTOREA: Metalen eraldakuntzarako industriak. Doitasunezko mekanikak.
- 4. SEKTOREA: Beste manufaktura industria batzuk.
- 5. SEKTOREA: Eraikuntza.
- 6. SEKTOREA: Merkataritza, Jatebakeak eta Ostalaritza. Konponketak.
- 7. SEKTOREA: Garraioak eta Komunikabideak.
- 8. SEKTOREA: Finantza Erakundeak, Aseguroak, Enperesei egindako Zerbitzuak eta Akurapenak.
- 9. SEKTOREA: Beste zerbitzu batzuk

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

atzerakada garrantzitsu bat izan zuen: 1981ean %16,9 izatetik %11,9 izatera pasa zen 1991an. Bost puntutako galera honek zer ikusi haundia du kaladeroak itxi izanarekin, lizentzien murrizketarekin eta orohar lehorreko mantenimendu lantegien krisiarekin, zeinaren ondorioa birmoldaketa egin beharra izan baita, eta kasu askotan Pasaia arrain lantegien itxi beharra ere, berziklatze zaila edo ezinezkoa duen langile mordoska langabezira eramanez duena.

Are garrantzitsu eta deigarriagoa 3. sektoreak "Metalen eraldakuntzarako industriak. Doitasunezko mekanika" izenekoak jasan duen beherakada da, 10 urtetan 9 puntu galdu baititu eta %35eko gutxitzea eragin bere lan eskuaren bolumen osoan. Untzigintza, fundizioak edo makina-erreminta bezalako sektoreen desagerpen ia erabatekoa eragin duen atzerakada honek ahulduta utzi du oso 1981ean populazio gehien okupatzen zuen sektore produktibo hau.

8. eta 9. sektoreak dira (zerbitzuen sektoreak) gorakada nabarmen bat izan zuten bakarrak, merkataritzari, administrazioari eta zerbitzuko enpresei lotuak.

6. sektoreak, Merkatal sektoreak hain zuzen, %16 xume bat igotzen du populazio okupatuaren bolumena, ia 2 puntu irabaziz 1981. urtean zeukan bolumen haundiari esker (bigarren sektorea baitzen hau 81. urteko enplegu bolumenean). 8. sektoreak, aldiz, zerbitzu espezializatuak eskaintzen dituzten enpresei lotua (finantzak, aseguroak, enpresentzako zerbitzuak, e.a....) %70eko igoera ezagutzen du enplegu kopuruan, nahiz eta 1981 eta 1991 urte bitartean bi puntu baino gutxiago irabazi. Nolanahi dela ere, 9. sektorea da, administrazioari eta honekin zer ikusia duten zerbitzuei lotua delarik, alde nabarmen bat markatzen duena, 9 puntutan igotzen baitu bere pisua %13,9etik %22,9ra pasaz 1981 eta 1991 urte bitartean. Pertsona okupatuaren igoera hau 565ekoa izan zen guztira, 81. urteko bolumena baino %74 gehiago hain zuzen.

Honekin guztiarekin, beraz, argi ikusten da zerbitzuen sektorean igo zela nabarmenki populazio okupatuaren bolumena. Igotze horrek ez zuen, hala ere, krisian zeuden sektoreetan ongarri hartu, lan merkaturako sarrera berrietan baizik, eta honek izaera estrukturalako langabetu poltsa haundi bat ekarri du berekin, zaila birmoldatzekoa eta gero eta eskari haundiagoa sortzen duena zerbitzu asistentzial eta lan birziklaketari dagokienez.

Orain arte erabili ditugun erreferentzi esparruen arteko egitura sektoreka konparatuz gero, ikuspegi nahiko parekatsua aurkitzen dugu, bai eta zenbait aldaketa esanguratsu ere. Zerbitzuen sektoreak Donostialdean hartu duen nagusitasuna Pasaian eta Oarsoaldean izandakoa baino haundiagoa da. 8. eta 9. sektoreek, Donostialdea hartuta, %35,3 bereganatzen duten bitartean, Pasaia ez du %28 gainditzen ez eta Oarsoaldeak (Errearteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia) %25 ere. Beste muturrera joz gero, 0 sektoreak, hau da, nekazaritza, abelazkuntza eta arrantzak, oso garrantzi eskasa hartzen du Donostialdean eta Oarsoaldean (%2,3 eta %4,7 hurrenez hurren); Pasaian, berriz, aurreko urteetan beherakada bortitza jasan arren, populazio okupatuaren %11,9 bereganatzen du.

Konparazio hori sexuen artean eginez gero, begibistan jartzen zaigu emakumea lan merkatura gero eta gehiago iriste hori ez dela sektore guztietan era uniformearen gertatzen, eta ez da tradizionalki gizonezkoenak izan diren sektoreekin lehian sartzen.

0, 1, 2 eta 3. sektoreetan (lehen mailako sektoreetan eta bigarren mailako sektore industrialean), emakumearen presentzia urria gertatzen da gizonak duenarekin alderatuta. Manufaktur industriei loturik dagoen 4. sektorean baino ez da oreka egoera mantentzen (%7,1 gizonezkoak eta %7,6 emakumezkoak), eta egoera hau ez da gertatzen ez Oarsoaldearen esparruan, bertako tasa %11,3 eta %8,8koa baita da, ezta Donostialdean ere, %14

eta %8,5 hartzen baitu honek. Arrain manufakturazko sektorearen lan eskua tradizionalki emakumezkoa izatea liteke, apika, horren arrazoiak.

Emakume okupatuaren pisua hiru sektoretan soilik da nagusi gizon okupatuaren gainetik, hots, 6. sektorean (merkataritza), 8. sektorean (zerbitzu espezializatuak) eta 9. sektorean (administrazioa), eta azken honetan gaitu eta bikoiztu egiten ditu ia gizonezkoen zifra absolutuak.

**OKUPAZIO TASAK AKTIBITATE SEKTOREEN ETA SEXUEN ARABERA**

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

## PASAIA 1991

## II-4.5 TAULA

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
0 SEKTOREA	16,2	2,00
1. SEKTOREA	2,7	0,2
2. SEKTOREA	3,4	1,4
3. SEKTOREA	18,7	4,3
4. SEKTOREA	7,1	7,6
5. SEKTOREA	8,6	0,8
6. SEKTOREA	15,1	26,2
7. SEKTOREA	12,2	3,00
8. SEKTOREA	4,4	5,5
9. SEKTOREA	11,6	49,00

Iturria: EUSTAT.

Geuk egina.

## BIZTANLERIA OKUPATUA LANTOKIAREN ARABERA. 1986

## II-4.6 TAULA

	Udalerrian zehar	Donostialdean	Gipuzkoan zehar	Euskadin zehar	Gainerakoa	GUZTIRA
PASAIA	46,8	41,1	4,2	0,3	7,6	100
OARSOALDEA	38,0	51,6	5,7	1,5	3,2	100
DONOSTIALDEA	62,8	27	5,4	0,4	3,7	100

Iturria: 1986ko Errolda. D.P.B. - Gipuzkoako Foru Aldundia.

Geuk egina.

Biztanleria okupatuaren taldean "lantokia" aldagaia sartzen badugu (14. taula), hortxe ikusten dugu 1986an Pasaian lan egiten zuen biztanleria okupatua %50 ingurukoa zela (%46,8), Donostialdeako udalerrien batz bestekoa baino 16 puntu azpitik eta Oarsoaldeako udalerrien batz bestekoa (Errenteria, Pasaia, Lezo eta Oiartzun) baino 8 puntu gaintik.

Donostialdeako udalerrietan bizi eta bertan lan egiten zuten pertsonak merkatal sektorean -6nean- eta administrazio eta zerbitzu espezializatuetakoa sektorean -9nean- aritzen ziren bitartean (%22 eta %29), Pasaiari dagokionez, zero sektorea agertzen da, arrantza sektorearen bolumen haundia dela eta seguraski, udalerrian bertan lan egiten zutenen sektore nagusia, %19,5arekin. Hiruzpalau puntutako aldearekin 6. sektorea (%17,8), 3. sektorea (%16,55) eta 7. sektorea (%16,3) aurkitzen ziren.



## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

Azken sektore hau, garraio eta komunikabideekin zer ikusia duten iharduerak hartzen dituen, nahiko garapen adierazgarria iristen da, erreferentzi esparruek dutena baino askoz haundiagoa (%6 Donostialdean eta %9 eskualdean).

Merkataritzari lotuta dagoen 6. sektorea alde batera utzita, bertan aritzen direnak portugintzarekin ere erlazionatuta egon daitezke eta, bistakoa dirudi bai 0 sektorea, arrantza, bai 7. sektorea, garraioak, Portuaren existentziaren ondorio zuzena direla; bien artean udalerrian lan egiten zuen populazioaren %35,8 bereganatzen zuten eta %17a populazio okupatu osoa hartuta.

Ezaugarri bereizle garrantzitsu bat dugu hauxe beraz, Donostialdearen osotasunean nortasun desberdin bat markatzen duena eta Portu-Hiria erlazioa baldintzatu behar duena.

Donostialdean eta Oarsoaldean beren udalerritik kanpo baina eremu komarkalaren barne lan egiten dutenak industri sektoreetan eta administrazio nahiz hirugarren zerbitzuen sektorean biltzen dira gehienbat (3. eta 9. sektoreetan hurrenez hurren) garrantzi-ordena horretan.

Pasaiak, populazio okupatuaren %41,1 Donostialdeako beste udalerrri batean lanean zuelarik 1986an, alde nabarmena erakusten du eskualde barruko batz bestekoekin konparatuta, langile gehienak 9. sektorean -administrazioan- eta 6. sektorean -merkataritzan- biltzen baitziren, kolektibo horien %29,4 eta %19arekin hurrenez hurren.

Anekdotarako baino balio ez arren, ondoko hau behar da azpimarratu, alegia, 1986. urtean Euskaditik kanpo lan egiten zutenen artean, 0 sektoreari eta beraz, arrantza sektoreari lotutakoen taldea nagusitzen zela Pasaian %38arekin. Beste erreferentzi esparruetan, berriz, zerbitzuen sektorea (9na) da populazio okupatuaren talde hau nagusiki bereganatzen duena.

### **4.3 LANGABEZIA**

1991ko Zentsuaren arabera, Pasaiako langabezi tasa %23,7koa zen (II-4.7 taula), eskualdeko lau udalerrien batz bestekoa gaindituz, eta 4 puntutara jarriz Donostialdearen batz bestekoaren gainetik.

### **LANGABEZI TASA. 81-91 BILAKAERA**

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

II-4.7 TAULA

		1981	1986	1991
PASAIA	BIZTANLEAK	1.667	2.330	1.800
	%	23,28	31,20	23,75
OARSOALDEA	BIZTANLEAK	5.866	8.330	7.081
	%	20,62	28,36	22,6
DONOSTIALDEA	BIZTANLEAK	20.662	30.120	26.223
	%	17,82	24,51	19,7

Iturria: Zentsuak eta Erroldak. D.P.B. - Gipuzkoako Foru Aldundia.

EUSTAT.

Geuk egina.

80ko hamarkadako bilakaera prozesuaren baitan 1986ko erroldan hartu zuen langabeziak mailarik haundiena, orduko tasa %31,20koa izan zelarik (II-4.7 taula); Donostialdeako bataz bestekoarekin izandako aldeak ere oso nabarmenak izan ziren, ia 7 puntutara iritsiz (Donostialdea %24,51). Honekin bada, 86-91 bosturtekoan asko jaitsi zen langabetuen kopurua eta, ondorioz, baita langabezi tasa ere. Jaiste hori ia 8 puntutakoa izateak eskuratutako datuak hainbat iturritan egiaztatzen behartu gaitu.

Langabezi tasa sexuen arabera aztertuz gero (II-4.8 taula), desoreka nabarmen bat agertzen da edozein adin eta erreferentzi esparrutan, muturrak hauetxek direlarik: txikiena Donostialdea 6 punturekin 1981ean eta haundiena "Oarsoaldea" 15 punturekin 1991an.

LANGABEZI TASA SEXUEN ARABERA

II-4.8 TAULA

		1981		1986		1991	
		GIZONEZK.	EMAKUMEZK.	GIZONEZK.	EMAKUMEZK.	GIZONEZK.	EMAKUMEZK.
PASAIA	BIZTANLEAK	1.127	540	1.384	946	933	867
	%	20,75	31,21	27,09	40,10	18,83	33,04
OARSOALDEA	BIZTANLEAK	3.873	1.993	4.949	3.381	3.575	3.506

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

	%	18,15	28	24,06	38,42	17,34	32,59
DONOSTIALDEA	BIZTANLEAK	13.044	7.618	17.357	12.583	13.030	13.193
	%	16	22,16	21,5	30,42	15,71	26,34

Iturria: Zentsuak eta Erroldak. D.P.B. - Gipuzkoako Foru Aldundia.

## EUSTAT

## Geuk egina.

Sexuak bereiztuz gero bilakaera are esanguratsuagoa egiten da. 86-91 bosturtekoaren goraldi ekonomikoak gizonezkoen langabezi tasa jaitsiarazi eta 1981ekoaren azpitik jarri zuen bitartean, emakumezkoen dagokienez ez zen inoiz aipatu urtearen tasa berdindu. Emakumeen langabezi tasak horrela jokatzearen arrazoiak bat emakumezko aktiboen biztanleriaren hazkunde haundiagoan, jada aipatu dugun horretan, bilatu beharra dago, bai eta lan merkatuan erantzun positiborik ez aurkitzean ere.

## LANGABEZIA EGITURA 1991

## II-4.9 TAULA

	PASAI	OARSOALDEA	DONOSTIALDEA
LEHEN ENPLEGU BILA DAUDEN LANGABEAK	44,2	42,2	40,2
LAN EGIN DUTEN LANGABEAK	55,8	57,8	59,8
LANGABETUAK, GUZTIRA	100	100	100

Iturria: 1991ko Zentsuak. EUSTAT.

## Geuk egina.

Pasaiak eta orain arte erabili ditugun erreferentzi esparruek badute elkarren artean halako homogeneousitasun bat langabetuen taldearen osaketari dagokionez. 1991an langabeturik zegoen biztanleriaren %55,8 (II-4.9 taula) lanean aritua zen lehenago, eta %44,2 lehen enplegu bila zebilen (ikus 4. grafikoa). Azken zifra hau jaitsiz joan da azken urteotan eta horrela daukagu nola 1981ean lehen enplegu bila zebiltzan langabetuak %53,1 ziren. Lanbide trebakuntza eta heziketa eskoleen lana bere fruituak ematen ari dela adierazten digu horrek, bai eta oraindik gehiago bultzatu beharra daudela ere; begiratzen badugu zenbat ziren Pasaian 1991an lehen enplegua bilatzen zuten pertsonak, hor non aurkitzen dugun %48,5ak eskolaurreko eta lehen mailako ikasketak baino ez zituela, %21,2ak lanbide-hezkuntzako ikasketak eginak zituela, %16ak bigarren mailako ikasketak, %5ak erdimailako ikasketak eta %7,6ak goimailako ikasketak.

Lehenago lan egin duten langabetuen artean administrazioari eta zerbitzu espezializatuari dagokien 9. sektorekoak nabarmentzen dira %21,3arekin. Aitzitik, 3. sektoreari dagozkion langabetuak -Metalen Eraldakuntza- tarteko maila batean mantentzen dira %15,5arekin.

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

Honek badu bere bitxikeria antzik, izan ere, 80ko hamarkadaren bilakaeran zehar 3. sektoreak utzi egin baitzion Pasaiaiko motore ekonomikoa izateari eta 9. sektoreak hartu zuen haren lekua. Gogora ekartzen badugu nolakoak ziren okupazio tasak iharduera sektoreen arabera (12. taula), hortxe ikusten da aipatu sektoreek populazio aktiboaren %23,3 eta %13,9 okupatzen zutela 1981ean, eta 1991an berriz irauli egiten da egoera hori tasa hauek emanez: %14,4 eta %22,9 hurrenez hurren.

Zilegi litzateke pentsatzea 12 urte horietan pertsona gehiago liberatu dituen sektoreak izan behar duela langabezi indize haundiagoa eman behar duena; hala ere, gehien hazi den sektorea da langabezi tasa haundiena sortzen ari dena.

Gertaera horren esplikazio bat metal-burdingintzaren sektorea nola izan den birmoldatua aztertuta aurkituko genuke, birmoldaketa hori, izan ere, jubilazio aurreratuen formula erabiliz burutu baita lan merkatuaren berezko joera libreari muzin eginez, gainontzeko sektoreetan ez bezala.

I.N.E.M.-ek 1994ko otsailaren 2ko dataz eskaini dituen zifrak baloratzean, ezinezkoa zaigu langabezi tasa kalkulatzeko, data horretako populazio aktiboa zenbatekoa zen ez dugu-eta ezagutzen, baina badugu sumatzerik 1991ko martxotik (zentsua) 1994ko otsailera bitartean langabetuen kopuruak izan duen igoera absolutoa %17ko ingurukoa daitekeela, eta aurretik lan egindako langabetu aktibo guztien %57,2, 6., 8. eta 9. sektoreetako langabetuak direla.

Egoera hau guztia, non Zerbitzuen Sektorea lan merkatuaren motore bihurtu baita, langabezi tasarik haundienak eraginez aldi berean, eta sektore industrialak bigarren plano batera pasa den krisialdi gogor bat jasan duelako eta bere lan eskua murriztua ikusi duelako, amankomuna da erabilitako erreferentzi esparruetan ere. Gertaera hau, gaurko egoera ekonomikoaren kontraesan sakon bat isladatzen duena, definizio urbanistiko berri bat ekartzen ari da berekin zenbait udalerritan, definizioa, berrindustrializazio itxaropenaren mantenimenduan oinarritzen dena lurzoru industrialak masiboki programatuz eta area andeatuak zerbitzuen sektoreetarako birkualifikatuz. Beste zenbait kasutan, "Zerbitzuen Sektore Aurreratua" (8. eta 9.) sektoreak deituriko espejismo are haundiagoa erabiliz, iragan garaietako loraldi ekonomikoa berreskuratu nahi da.

Eredu hori aurrera ateratzen dela gertatuko balitz, makina bat parke teknologiko edo hainbat eta hainbat bulego espazializatutako zonalde ugaritzearen lekuko izan gintezke. Aurkako kasuan, eta joku ekonomikoaren hasierako espektatibek bultzatuta, planeamenduaren ez betetze sistematiko baten aurrean egon gintezke, arazoak areago errotuz eta zailduz eta, beraz, irtenbide latzagoak eraginez.

#### **4.4 UDALERRI BARRUAN KOKATURIKO IHARDUERAK**

1991. urteko Pasaiaiko lokalen zentsuari buruz estimazio bat eginez (II-4.10 taula), agerian jartzen zaigu guztira 5.476 pertsona ari zirela udalerrriaren barruan garatzen ziren ihardueretan lan egiten, 1.038 lokal edo instalazio aktibotan orotara.

### **PASAIAN KOKATURIKO LOKALAK ETA BERTAKO IHARDUERETAN LAN EGITEN DUEN POPULAZIOA IHARDUERA SEKTOREEN ARABERA. 1991**

#### **II-4.10 TAULA**

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

		0 Sektorea	1. ... Sektorea	2. Sektorea	3. Sektorea	4. Sektorea	5. Sektorea	6. Sektorea	7. Sektorea	8. Sektorea	9. Sektorea	GUZTIRA
Pasaia, guztira												
Biztanleria okupatua	Besteren kontu	815	165	9	1.545	169	88	468	311	190	796	4.556
	Bere kontu	8	0	0	59	46	29	622	18	23	115	920
Lokalak	Lanean	34	4	2	139	55	31	495	61	55	221	1.038
	Hutsik											344

**Iturria: Lokalei buruzko Zentsua. 1991.**

**Geuk egina.**

Kontutan hartzen badugu Pasaian bizi ziren 5.778 aktibo okupatuetatik bakar bakarrik %48,8k, hau da, 2.704 pertsonak (II-4.6 taula) lan egiten zuela udalerrian, berehala ohartzen gara egunero 2.772 pertsona iristen direla Pasaia bertan lan egitera, eta honek esan nahi du Pasaian zeuden lanpostuen %50,6 kanpotik iritsitakoekin betetzen zirela.

Iharduera sektoreen arabera begiratuta, osaketa honek kontrastatu egiten du udalerrian bizi diren aktibo okupatuen artean erregistratutakoarekin. (II-4.11 taula eta 5. grafikoa).

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

---

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

**PASAIKO LAN MERKATUAREN ESKAINTZA ETA ESKARIA IHARDUERA SEKTOREEN ARABERA, 1991.****II-4.11 TAULA**

	PASAIAN BIZI DIRENEN OKUPAZIO TASA	PASAIAN SORTUTAKO LANPOSTUEN TASA	LEHENAGO LAN EGIN DUTEN PERTSONEN LANGABEZI TASA
0 SEKTOREA	11,9	15	11
1. SEKTOREA	1,9	3	0,8
2. SEKTOREA	2,7	0,2	3,5
3. SEKTOREA	14,4	29,3	15,5
4. SEKTOREA	7,3	3,9	12,4
5. SEKTOREA	6,3	2,2	7,0
6. SEKTOREA	18,6	19,9	18,8
7. SEKTOREA	9,3	6,0	7,0
8. SEKTOREA	4,7	3,9	2,7
9. SEKTOREA	22,9	16,6	21,3

3. sektorea, "Metalen eraldakuntzarako industriak. Doitasunezko mekanika" delakoa, 1991. urtean sektorerik garatuena baldin bazen sortutako lanpostuen %29,3arekin, Pasaian bizi eta lanean zihardutenen artean %14,4 soil batera baino ez zen iristen; aurreko batean adierazia utzi dugun bezala, garbi dago sektore hau beherantz dihoala, Pasaian bizi eta lan egiten zuen populazio aktiboaren %23,3 hartzen baitzuen 1981ean. Zifra hauek, nolana ere, baliteke ez etortzea bat 1994ko egoera errearekin zeren, jakina baita, azken hiru urte hauetan untzigintza eta untzien konponketan ziharduten enpresa garrantzitsuenetako batzuk (Lasak eta Guriak kasu) itxi egin behar izan dutela eta badirela beste batzuk (Luzuriaga, Askorreta) krisi egoera gorrian egoteaz gain, nahiko etorkizun dudazkoa dutenak.

9. sektorea, "Beste zerbitzu batzuk" izenekoa, zeina Pasaian bizi ziren biztanle aktibo okupatuaren artean sektorerik garatuena bezala agertzen zen azken urteotan %22,9arekin, hirugarren agertzen da gaurregun udalerrian garatzen diren iharduera sektoreetan, eta sortutako lanpostuen %16,6a baino ez du hartzen.

Lehenago azaltzen genuenez, kontraesanezkoa da erabat bai udalerrri mailan eta bai eskualde nahiz probintzi mailan azken urteotako "motore ekonomikoa" izan den sektoreak langabezi tasarik haundiena sortzea aldi berean, birmoldaketaren astindua bereziki jasan duten sektoreak, 3na esaterako, "Metalen eraldakuntzarako Industria. Doitasunezko Mekanika", eta 4na, "Beste manufaktur industria batzuk" gairiditza iritsiz.

6. sektoreak, "Merkataritza, Jatetxeak eta Ostalaritza. Konponketak" delakoak, %48a hartzen du Pasaian kokatutako lokal edo establezimendu aktiboekin dagokienean, eta %19,9a sortutako lanpostuetan. Azken zifra honek nahiko parekatsua du sektore honetan okupatutako kopurua, %18,6 alegia, nahiz eta bere langabezi tasa, %18,8, bereziki handia izan. Sektore honek baditu hainbat ezaugarri beste sektoreetatik bereizten dutenak, norbere kontu aritzen direnak besteren kontu aritzen direnak baino gehiago baitira hemen zifra absolutoetan, eta hau sektore honetan bakarrik gertatzen da. Familia izaerako merkataritza txikia nagusi duen egitura ekonomiko baten aurrean gaude, non batzuetan beste 2,2 pertsona baitaude establezimendu bakoitzeko, eta besteren kontu aritzen diren langileak 0,7 diren norbere kontu diharduen okupatu bakoitzeko.

Baliteke errentagarritasunari ez baizik eta subsistentziari lehentasun ematen dion merkatal eredu bat izatea honako hau, sektorearen garapen arrazionala baino gehiago autoenpleguaren babesa bilatzen duena.

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

0 sektoreak, Pasaiari dagokionez arrantza nagusi duela, sortutako lanaren %15a bereganatzen du, eta Pasaian bizi den populazio okupatuaren %11,9a hartzen. Sektore honen balorazioa egitea bereziki zaila da, bere langabezia boladaka izaten baita eta bere egitura produktiboa, lehorrean eta itsasoan egonda, nekez konpara daiteke beste sektoreekin. Nolanahi ere, bistakoa dirudi sektore hau beherantz datorrela eta ez duela ez oreka egoerarik ez bere neurri egokirik oraindik aurkitu.

Barrutiz barruti (II-4.12 taula) osaketa orokorrari eusten zaio, baina badira hainbat ñabardura esanguratsu bereizi egiten dituztenak.

Trintxerpe-San Pedron, arrantzari lotutako 0 Sektorea da garatuena, eta honen ondoan, baita 3. sektorea ere -industria- ia neurri parekatsuan. Antxori dagokionez, 0 sektoreak ez du batere garapenik eta 3. sektorea da hemen oinarritzakoa (Luzuriaga Fundizioa); garraioei lotutako 7. sektoreak hartzen du bertan indar haundiagoa, portuko trafikoarekin zer ikusia duten enpresa bitartekari gehienak barruti honetan baitaude zentsatuta. Donibanen arrantzari lotutako 0 sektorea eta Untzigtza eta untzien konponketari lotutako 3. sektorea dira garatuena, Zentral Termikari batez ere lotuta dagoen 1. sektorearen garapena azpimarratzekoa delarik.

**ESTABLEZIMENDUAK ETA BIZTANLERIA AKTIBO OKUPATUA BARRUTIZ BARRUTI ETA IHARDUERA SEKTOREEN ARABERA. 1991.**

II-4.12 TAULA

DONIBANE		0 Sektorea	1. Sektorea	2. Sektorea	3. Sektorea	4. Sektorea	5. Sektorea	6. Sektorea	7. Sektorea	8. Sektorea	9. Sektorea	GUZTIRA
----------	--	------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	---------

Biztanleria okupatua	Besteren kontu	183	165		301	4		45	1	10	153	862
	Bere kontu	4	0		33	8		87	4	1	13	150
Lokalak	Lanean	4	3		15	5		64	2	5	40	138
	Hutsik											38

TRINTXERPE-SAN PEDRO		0 Sektorea	1. Sektorea	2. Sektorea	3. Sektorea	4. Sektorea	5. Sektorea	6. Sektorea	7. Sektorea	8. Sektorea	9. Sektorea	GUZTIRA
----------------------	--	------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	---------

Biztanleria okupatua	Besteren kontu	632			603	98	88	354	60	111	487	2.433
	Bere kontu	4			25	26	23	342	7	13	43	483
Lokalak	Lanean	30			54	31	26	335	12	31	106	625
	Hutsik											243

PASAI ANTZO		0 Sektorea	1. Sektorea	2. Sektorea	3. Sektorea	4. Sektorea	5. Sektorea	6. Sektorea	7. Sektorea	8. Sektorea	9. Sektorea	GUZTIRA
-------------	--	------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	---------

Biztanleria okupatua	Besteren kontu			9	641	67	0	69	250	69	156	1.261
----------------------	----------------	--	--	---	-----	----	---	----	-----	----	-----	-------



## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

	Bere kontu			0	1	12	6	193	7	9	59	287
Lokalak	Lanean		1	2	11	19	5	96	47	19	75	275
	Hutsik											63

**Iturria: Lokalei buruzko Zentsua. 1991.**

**Geuk egina.**

Pasaia osoa hartuta, bilakaeran dauden eta beren behin betiko egokipenerantz abiatzen diren bi eredu ekonomikoren biziraupenaz hitzegin genezake. Alde batetik, eta 6. grafikoan marra jarraituaz adierazi den bezala, lehen eta bigarren sektoreetan oinarritzen den egitura ekonomiko batekin egiten dugu topo; eta bestaldetik, eta marra puntadunaz hau, lehen eta bigarren sektoreen berdimentsionamendua asumitu bai baina argi eta garbi zerbitzuen sektoreetarantz jotzen duen biztanleria aktiboan oinarritutako eredu ekonomikoa ageri zaigu.

## **5.- PASAIKO PLANGINTZA URBANISTIKOA**

### **5.1 AURREKARIAK.**

1865ean Cortazar Arkitektoak Donostiako zabalgunea eraikitzeari ekiten dio hirurogeita lau bat etxadiz osaturiko erretikula bat eratuz eta perpendikularrak diren kaleen artean enmarkatuz etxadi horiek.

Aurrekari hori aintzat hartuz, eta proiektuaren emaitzak onak izaten ari zirela ikusita, José Clemente Osinalde Anabitartek, Fermín de la Sala y Collado "Mandas Dukea"ren ordezkari zenak, ezaugarri beretsuko erretikula bat diseinatzen du haren terreno edo paduretan. Donostiako diseinu hori terreno publikoen gainean egiten denez, ia berehalakoan ekiten zaio bere exekuzio eta kudeaketari, kale eta plazak eskuratzeko ez desjabetzapena ez bestelako sistemarik zertan erabili behar gabe. Gure kasuan, berriz, jabetza osoa Mandas Dukearen eskutan zegoen haren ondasunen administrazioa Diputazioak heredatzen duen arte, egungo egunean udal jabetzakoak izatera oraindik pasa ez direlarik.

Osinaldek diseinatzen duen planoan bi faktore hartzen dira kontutan gure ustez; horietako bat, nabarmen-nabarmena, salmentara bideratuko diren partzela eraikigarrien definizioa dugu, eta bestea, gero eta indartsuago datorren merkatal burgeseria eta beronen eskaria ezaugarri horiek izango dituen hiri planifikatu bat, Espainako eta atzerriko hiri askotan errepikatzen dena, egin dadin. **Plano hau 1883ko abenduaren 31koa** da, eta ez zaio ezagutzen ez onarpen akordiorik, ez berari lotutako ordenantzarik. Etxadi-patioetako lerrokadurarik eta eraikuntza-hondorik ere ez du agertzen.

Planoak 11,5 Ha. inguruko azalera bat antolatzen du "A"tik "O"ra sailkatzen diren 15 etxadi bereiztuz. Molinao itsasadarraren ezkerrekoa bideratzen du eta bertan eta eraikitako bidean apoiatzen da Diputazioarena omen zen petroleo birfindegia irisgarritasuna emateko. Bide hori Altzarekiko muga bilakatuko zen gero, eta gaurregun Donostiako udalerririkiko muga markatzen du. Eskalantegi kaleaz ari gara.

Gisa honetako proiektuetan ohi zenez, erabilerak eta ekipamenduak ez ziren kontutan hartzen, terrenoak erosi eta urbanizazioa exekutatzeko ekimen publikoaren geroko zeregina izaten zelarik. Kaleen sestrak zeintzuk izan behar duten ezartzen ez duenez, eta geroko proiekturik ezean, errepidearen eta Zumardiaren arteko desnibela 1,70 metrotakoa gertatu da azken honen kalterako.

Urte batzuk geroago, hiru barrutietan udalerriri donatuko zizkion eskolak bere diruz eraiki nahi zituela eta, Viteri jaunak, Aguinaga arkitektoarekin batera, zoru publikoa eskatzen dio Udalari. Era horretara Donibane eta Antxoko eskolak eraikitzen dira, eta San Pedrokoak konpontzen. 1904ko Maiatzaren 14an Antxoko terrenoaren erosketa argitaratzen da, luze-zabalera hauxe duela:  $24,40 \times 42 = 102,4 \text{ m}^2$ , 10na pta/m<sup>2</sup>.

1889-1890 urte bitartean Madrid-Irun errepidea eraikitzen da, eta 1912an bide estuko trenbidea ("Topoa") egiten. Lehenengoak trenbidearekiko norabide paraleloa egiten du, eta bigarrenerako Antxoko ordenazio berria aldenik alde zeharkatzen duen zubibide bat eraikitzen da hasieran proiektaturiko etxadietako lau banatuz eta horien ordeza launa bloke eta etxadi eratuz.

Oraintsu aipatu ditugun gertakizunetan eta jarraian Antxoko, eta hedaturaz, Pasaiako planifikazioaren inguruan azalduko ditugunetan aurkitzen ditugu isladaturik mende honen lehen bi hamarkadetan hasten den presio demografikoa eta garapen ekonomikoa.

**1912ko Abuztuaren 19an eginiko Udal Osoko Bilkurak, eta bere Lehendakariaren eskariz, "Hiri honetako Ordenantzak aski eskasak direla jabeturik, artikuluetako batzuk aldatu, eta Udalak egoki erizten dituenak erantsi edo ezabatzea" erabaki zuen.** Akordio honek Ordenantza batzuk egon zirela pentsarazten badigu ere, egindako ikerketan ez da horien froga emango duen dokumenturik aurkitu. Aldiz, 1915eko Maiatzaren 27an,

eraikitze baimena eskatu eta altuerekin arazoak zeudela eta, hauxe irakur dezakegu: "...Korporazioak guztion

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

onerako izango den akordioa hartu beharra duela azpimarratzen du Lehendakari jaunak, eta horretarako zera proposatzen du, jabe orori jakinaraztea hemendik aurrera egiten diren eraikin guztiek gutxienez 10 eta gehienez 20 metroko altuera eduki beharko dutela sestraren kaletik teilatuaren egarberaino, eta pisu bakoitzaren altuera 2,8 eta 3 metro bitartekoa izango dela higienearen mesederako beti. Kalearen altuerak eskola publikoen eraikinak terrenean asentatzean izango duen mailara egon beharko duela gaineratzen du ere".

Onartua izan arren, akordio honek ez zituen behin betiko onarpenerako behar ziren tramiteak jarraitu; esanguratsuen, dena den, gai honen inguruan planorik edo bestelako akordiorik ez egotea esplizituki aitortzen dela da.

1915eko Uztailaren 8an, handik hilabete batera alegia, Alkate-Lehendakariak Udal Ordenantzetan hainbat hutsune daudela ikusirik eta hiria haunditzen eta zabaltzen dihoala jabeturik, horiei buruzko proiektu bat aurkezten du.

**1915eko Irailaren 28an, Urriaren 12an eta Urriaren 17an eginiko Plenoetan Pasaiako Erregimen eta Gobernurako Ordenantzak onartzen dira, 1916ko Urtarrilaren 8an gobernadore zibilak sendesten dituelarik.**

Bi tituluz daude osatuta: bata hiri-poliziaz dihardu, eta besteak landa-poliziaz. Lehenak hiru kapitulu ditu: ordena publikoa, segurtasun pertsonala eta garbitasun eta osasungarritasuna, aurreneko biak 7 eta 10 sekziotan eta hirugarrena 8 sailetan banatzen direlarik. Bigarren tituluan kapitulu bi ageri dira, landa-lurreko eraikuntzak batetik, eta neurri orokorrak bestetik, erremate gisara Xedapen gehigarri bat datorrelarik.

Ordenantza hauek berrogei urtez egon dira indarrean, eta badira gaurregun Plan Orokorrean geroago sartu zirenekin zuzendu edo ordezkatuak ez izatean gure ustez oraindik balioa dutenak.

Fenomeno urbanoen konplexutasun eta azkartasuna ikusita, bistakoa da berrogei urteko epealdia luzeegia dela eraginkortasun erreala izan zezaten, beste hiri batzuetan prozedura berriekin kontrolatzen baitziren jada fenomeno horiek. Nahiz eta ordurarte ia erabat ezezagunak ziren higiene kontuetan lagundu, ordenantza hauek dentsifikazioa ere mesedetu egin dute Pasaiako problematika urbanoari ikuspegi globalik gabe aurre eginez eta unean-uneko eta tokian-tokiko konponbideak erraztuz. Barrutien nortasunari eta berezitasunei kontzienteki eusten bazaie ere, ez dira lurralde mailako erizpide unitarioak sekula erabili, eta hau ezinbestekoa gertatzen zen zonalde bakoitzak zeuzkan etxebizitza-premiei erantzuz ez ezik, udalerrri mailan zeuden hainbat behar, hala nola, zoruaren halako espezializazio industrial bat, azpiegituren planifikazioa, espazio libreak eta gizarte ekipamenduak, burutzeko ere.

**1928an, Victor Zubizarreta, delineante eta Gau Eskolako marrazketa irakasle zenak, Antxoko plano bat marrazten du aspektu berriak agertuz. Bertan "Topo"aren trazadura, erreka eskubialdearen kanalizazioa, istilaren estalketa azokaren eraikinarekin, edo lerrokadura berriak ikus ditzakegu. "M" eta "N" etxadiak zabaldu egiten ditu, eta "O" etxadia bitan zatitzen du "O" eta "P" etxadiak sortuz. Etxadi-patioetako lerrokadurak ere agertzen dira.**

Plano honek, edo hobeto esanda, bi eskala desberdinetan egingo izatean bi planoz osatzen den honek, zehaztasun haundiz marraztua izan arren, ez zuen onespren ofizialik jaso; eraikuntzak bere prozesua jarraitu zuen, eta gure kasuan, lehen adierazitako zehaztapenei lotu gabe.

Guztiarekin ere aitortu beharra dago, hala aurrikusitako eredia nola onartu ziren ordenantzak eraginkorrak suertatu zirela emaitza formalari dagokionez, nahiz eta legalki Osinalderen plana eta honen ondorenean marraztutakoak onartu gabe egon oraindik; beste zenbait aspektutan berriz, hala nola, zoruaren probetxamendu berrietan, altueren gehiketan, lerrokaduren aldaketetan, eta abarrean, kudeaketa askoz kaxkarragoa izan zen,

bai eta kaltegarriagoa ere biztanleentzat. Eraginkortasun hori Antxora iritsitako burgeseriaren aldetik etorri zela dudarik ez da, apenas esan baitaiteke ezer udal kudeaketari buruz, ez bada eskolak eta gaurko Zumardia eraikitzeko

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

terrenoak erosi zituela eta, aparteko gauza bezala, Mandas Dukeak, Alkateordetza altxatzeko terrenoen jabeak hain zuzen, terreno horiek lagatu zizkiola dokumentazio falta dela eta hemen ezin deskriba dezakegun baldintza bat jarrita.

Mende honen hirugarren hamarkadan, eta 1916. urteko Ordenantzetan oinarrituz, lehen etxebizitzak eraikitzen dira Trintxerpen. Garai hartakoak Arrandegi kalea eta gaurko Euskadi Etorbidea gihartzen duten eraikinak ditugu, itsasoan batipat lan egiten duen jendearentzat eginak.

Antxoko barrutira itzuliz, 1935eko Urtarrilaren 31an, M. Azurmendi zenaren alargunak eta seme-alabek haren izena daraman kalea lagatzen diote Udalari behin zubia eraiki eta Molinao errekaaren eskubialdea beren ekimenez bideratu ondoren.

Laugarren hamarkadaren hasieran, Donibane ere eraikuntza lanetan dabil, baina ordenaziorako dokumentu grafikorik jarraitu gabe noski. Aipatu ditugun ordenantzak izango dira horien oinarri bakarra. Horrez gain, Viteri eskolak haunditzen dira, eta plazako kioskoaren obrak enkantean jartzen.

## 5.2 PLAN OROKORRA.

1941-42 urteetan, Arkitektura Zuzendaritza Orokorrek Gipuzkoako Diputazio Probintzialarekin elkarlanean diharduela, **Gipuzkoako Probintziarako Planaren** lanak egiten ditu. Probintziako lurraldeari ordenazio unitarioa ematea zen helburu. Onartzera iritsi bazen ere, dokumentu honek apenas izan zuen eragina; hala ere, baliagarria gertatu zen bai "Gipuzkoa-Industria" ikusmoldea bultzatuko zuten oinarriak finkatzeko, bai eta 1944ko Urtarrilaren 27an eta 1947ko Uztailaren 17an emandako Dekretuz sortuko zen erakunde berriari, Gipuzkoako Antolaketa Planaren Batzorde Probintzialari alegia, terrenoa prestatzeko ere.

Anekdotak gisara, hona hemen planaren barruan probintzia nola dagoen azaltzen duten lerroaldietako bat:

"Zilegi al da jokaera pasiboa erakustea probintziaren garapen anarkikoaren aurrean? Hala egingo balitz:

- Komunikazioak aldrebestu egingo lirateke errepideak suburbioko karrika bihurtzean.
- Herriak Trintxerpe, Matadero eta Amara bezalako txinatar auzo bilakatuko lirateke, ondorio latzak ekarri gizarteari eta osasunari: tuberkulosia, iraultza, e.a...".

**1950ean, Donostiako Udalak Eskualdearen Plana erredaktatzen du** Pasaia, Erreterria, Lezo, Hernani eta Usurbil barne hartuz. Pedro Bidagor buru duen Zuzendaritza Orokorreko Arkitektoak izango ditu Udalak laguntzaile.

Plan hau lehen aipatu dugun 42ko horretan oinarritzen bada ere, metodologia berria eskaintzen du haren aldean, eta albora uzten ditu neurri batean sarreran adierazitako ideia organizista haiek. Batzordearen erizpidearen arabera egina dagoenez, izaera zentralizatzailea ageri du gehienbat; ez dugu ahaztu behar, hartara, plan hau Donostiako Udaletik erredaktatzen dela.

Bertan garatzen diren helburuen artean hauetxek aurkitzen ditugu:

- Donostia mugara eta Hondarribiako aireportura hurbilaraztea, Iparreko errepide berriaren bitartez (gero Escarioren autopista izango denaren bitartez).
- Pasaia portua itometik ateratzea bere hazkundea ahalbideratuz aldi berean, Hegoko errepide funtzionalaren bitartez. Honek kalterik eragin gabe zeharkatzen du Donostia, 600 metro baino ez

baitu hiriko trafikoarekin kontaktatzen.

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

- Eskualdearen zerbitzuak, eta hauen artean Pasaiko Portuak Astigarragan duen sailkapen-estazioa dagoelarik, Urumea bailararen Ipar-Hego ardatzean pilotzea. Ibaiarekiko paraleloan, zeregin hori beteko zuen bidea trazatzen da.

1951. urtean, **Gipuzkoako Antolaketarako Planaren Batzordeak** plan-egitasmo bat aurkezten du. Komunikazioen inguruan lehenagotik egin diren ikerketak, une horretako tokian-tokiko planeamenduak, A. Martínez de Lamadrid Injenariak eskualdearen hirigintza industrialari buruz egindako azterketa, eta Pasaiko portuko gabinete teknikoak buruturiko lanak izango dira egitasmo horren oinarri.

Egun horietan ere, "**Liburu Gorria**" edo Gipuzkoako Antolaketa Planaren Hirigintz Arauak eta Eraikuntzari buruzko Ordenantza Orokorrak izeneko dokumentua erredaktatzen da.

Modu errazean, honek Gipuzkoako herriak antolatzeko erizpideak bateratzen zituen erredaktatzen ari ziren planetan. Bestetara esanda, izaera orokorreko kontzeptu urbanistikoaren bilduma bat ezartzen zuen "Gipuzkoa Handia" izatea nahi zen hari zuzendua.

"Liburu Gorria" honela dago eraturta:

- Bi zati ditu: Hirigintz Arauak eta Ordenantzak. Lehen zatia hiru kapitulutan banatzen da (izaera orokorreko arauak, industriari buruzkoak eta zonalde bakoitzerako bereziak); Ordenantzei dagokien zatia beste bi zatitan banatzen da: lehenengoan hiru kapitulu agertzen dira (udal baimena eta prozedura, eraikuntzarako xedapen orokorrak, eta arau-hausturak eta zigorrak), eta bigarreanean kapitulu bakarra dator (zonalde bakoitzerako Ordenantza bereziak).

Nola Ordenantza hauek, Probintzia osorako eginak, hala Eskualdearen Plana eta bere planteamendu zentralista eta teknokratikoak, geroago egiten den Pasaiko Plan Orokorren oinarri eta funtsa dira.

Lehen adierazi bezala, Batzorde Probintziala dugu probintziaren eta eskualdearen planeamendua bultzatzen duen motorea; Felix Llanos da orduan bulego teknikoaren zuzendaria, Pedro Bidagor aditua eta Luiz Astiazaran Arkitektura Zuzendaritza Orokorren ordezkaria. Planeamendu hau udal mailan hasi zen konkretatzen eta horrela **onartzen da 1954ko Otsailean Pasaiko Plan Orokorra**, Hirigintza eta Etxebizitzako Ponentzia Teknikoak, planaren egilea zen Felix Llanos arkitektoa presidente zuela, aldeko txostena eman eta gero.

Eskualdearen barruko kokapenari buruz Plan honek izan dituen aurrekari orokorrak ezagutzea beharrezkoa baldin bazen -aurrerago mintzatuko gara horretaz- egun haietan izaera lokal eta xehekatuago batez Antonio Elizalde Arkitektoak erredaktatzen dituen proiektuak ere eman behar dira ezagutzera Plan Orokorrean proposatzen den ordenazioa ulertzeko funtsezkoak direlakoan.

**1949. urtean, Elizalde Arkitektoak bi Ordenazio-plano marrazten ditu** ondoko zona hauek mugatzen duten terrenoa besarkatuz: Azkuene kaleak mendebaldetik, Esnabide kaleak eta Pilotalekuaren Plazak ekialdetik, Ulia Etorbideak eta Arrandegi kalearen erremateak iparraldetik, eta Euskadi Etorbideak hegoaldetik. Hau da, San Pedroko hirigunea ez beste guztia sartzen da bertan. Planoak Trintxerpe izenburua darama.

Plano hauek, zonalde berbera aztertu bai baina eraikuntz tipologia desberdina ageri dutenak, modan zeuden kontzepzio berriak eraskusten dituzte. Horietako bat jardín-hiriarena dugu eta bestea egitura funtzional bat ordenazio unitarioaren erizpideetan oinarritzen dena. Ordenazioak alde batera uzten ditu zabalgunek eta hiriguneetako molde estuak eta oso hiri zehatz eta kontrolatua proiektatzen du irozkai topografiko erreal bat -ez fikziozkoa- duten lerrokadurak garbi definituz; aski bedi esatea zentzu honetan, planoak 1:500 eskalako plano topografikoaren gainean egin zirela. Lehen mailako azpiegiturak garrantzi haundikoak dira eta berdeguneak leku zentralizatu eta topografia aldetik egokietan kokatzen dira.

Bi proposamenetan mantentzen den jardín-hiriaren tipologia isolatua, lorategiz inguratua eta goiko errepide ertzetan kokatua ageri da; I.N.V-ek geroago urbanizatu zituen terrenoak eta Pablo-Eneakoak okupatzen ditu. Martimuno,

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

Trintxer, Borda-Enea eta eskolaldean bi antolapen planteatzen ziren: etxadi itxiak patioekin kasu batean, eta patioekin gabeko bloke irekiak, berdegunez tartekatua, bestean. San Pedroko gunearekin muga egiten duen zonaldeak, Zamatetek alegia, ordenazio berdina mantentzen du bi proposamenetan, tipologia mistoak erabiliz.

Gauzak horrela, hau da, planeamendu xehekatu bat jada hortxe dagoenean, aipatu dugun eskualde mailako planeamendua Madriletik eta Estatu mailan planteatzen diren teoria urbanistikoek bultzatua denean, eredu ekonomikoa une horietan izaten ari zen eraldaketak diruaren sarrera laguntzen duenean, lehenagoko teoria urbanistiko eta ideologikoak alde batera uzten, zoru urbanoa trukerako ondasun bihurtzen eta, horren ondorioz, zoru nahiz etxebizitza sustapen publiko eta pribatuak agertzen hasten denean, **erredaktatzen da Plan Orokorra**.

Berau 52. urteko Eskualdearen Planaren lerro nagusiak, Probintziako Arauak (Liburu Gorria) eta Elizalde bost urte lehenago ezarritako ordenazioa jasotzera mugatzen da.

Nahiz eta Llanos eta Elizalde arkitektoak batera aritu ziren haren erredakzioan, "Gipuzkoa Haundia"ri buruz lehenak zituen teoriak inposatzen direnean (honen froga Iparreko autopista dugu, proiektatu zuen injeniararen izenagatik "Escario"ren autopista bezala ere ezagutua) Elizalde bertan behera uzten du proiektua. Bi planoak alderatuz gero argi eta garbi ikusten da aipatu autopista horrek ia bere osoan zapuzten duela Elizalde proiektatzen duen ordenazio guztia, eta ez soilik hazkunde urbanoari dagokionean, baita barne-koherentziari dagokionean ere.

Dagoeneko aipatu diren joera zentralizatzailerik eta teknokratikoak agerikoak dira Plan honetan. Izan ere, Donostiaren, probintziaren eta Estatuaren aldeko elementuek Udalerria kontutan izan gabe hartzen dute lehetasuna harako printzipio hura aldakarriz, alegia, Udal Ordenantzak ez direla aski landa-lurraren eta eskualdearen hirigintza interes orokorren ikuspegi organiko eta armonizatzailerik batekin gidatzeko. Portuak haundi-maundiko dimentsioak hartzen ditu dokumentu honetan, eta udalerraren arazoak herri honetako biztanleengan inoiz erreperkutitu ez duten interesen aitzakian zokoratzen ditu.

Hiru plano bano ez ditu: gaurko egoerarena, espazio libreena eta zonaketarena. Ez du ez txostenik ezta, berri lagunduz, aurrez eginiko azterlanik. Pentsatzekoa da Eskualdearen Planerako idatzi ziren azterlanetan oinarritzen dela (Lamadrid injeniarria, portuko talde teknikoak).

Espazio libreen planoan bide-azpiegitura, eraikin publikoak eta berdeguneak agertzen dira.

Bertan planteatzen diren azpiegiturak Elizalde proiektatutako garrantzia eta zehaztasuna ez badute ere, badira autopista dela eta, nahikoa garrantzitsuak Udalaren erabaki eta gestio ahalmenetik kanpo gera zitezten. Azpiegitura horietarako egitaraurik edo, behintzat, proiektu bereziak idazteko beharkizunik ez da ezartzen.

Egoera hori berdeguneei dagokienez ere gertatzen da, eta baita areagotu ere onartzen den Planak nabarmenki murrizten dituelako izan zezaketeen garrantzia galduaraziz. Badira, aldiz, bestelako berdeguneak, erabilera publiko bezala inolako baliorik ez duten pendiz haundiko zonaldeetan kalifikatuak.

Zonaketa-planoa "zoning" delakoaren bitartez egin dago garapen urbanoaren prozesuan apurka apurka antzematen hasiak diren erizpide berriei jarraituz, baina baditu hirigune eta trantsizio zonetan batipat, Elizalde eginiko proposamen grafikoetako zenbait. Zonaldeak bat datoz "Liburu Gorria"ren Ordenantzekin, hau da, 1. Ordenantza -hirigunea-, 2. Ordenantza -trantsizio-, 3. Ordenantza -jardin-hiria-, 4. Ordenantza -industrial-, eta 8. Ordenantza -zona berezi-. Aldiz, 5. Ordenantza -landa-zonak, 6. Ordenantza -erreserba zonak- eta 7. Ordenantza -errepide eta era guztietako bideen defentsa- ez dira agertzen.

Zonaketa-planoari gainera begiratu bat emanez gero, hortxe ikusten dugu azalera gehiena zona berezi bezala kalifikatu dela, beronen sailkapena, Liburu Gorriaren arabera, hauxe delarik:

- a) Berdeguneak.

## Testu Bategina

---

**"A" DOK.- TXOSTENA****DOC. "A" MEMORIA**

---

- b) Kirolguneak.
- c) Osasun zonak.
- d) Zona militarrek.
- e) Aerodromo zonak.
- f) Portualdeak.
- g) Trenbide zonak.
- h) Eraikin publiko edo berezien zonak.

Portualdea salbuesten badugu, gertatzezko egoera baitzen berau, ez zen horietako bat bera ere zehaztu. Bestalde, jardin-hiriko zonaldeak bere aldagaiak agertzen zituen hala erlaizarekiko altueran, 21 eta 9 metro bitartean, nola gutxienezko partzelan, 500 eta 5.000 m<sup>2</sup> bitartean, eta honen okupazioan, %25 eta %10 bitartean, baina aldagai hauek ere ez ziren planoan zehaztu.

1915eko ordenantzetan ageri ziren hutsuneak zuzendu gabe zeudela eta izaera orokorreko beste batzuk erantsi zirela konsolidatu zen Antxoko zati bat; barruti honen gainerakoa industrial bezala kalifikatu zen.

Benetan harritzekoa 5. eta 7. Ordenantzak ez jasotzea da, horren faltan kalifikatu ezinean geratu baitzen landa-zorua, eta bide eta errepideen defentsa ez zen ezarri aurrikusita zeuden bide-azpiegiturak gorabehera.

Honek guztiak pentsarazten digu Pasaia Plan Orokorra presaka edo erredaktatu zela, eta horrek bazuela bere zergatia, alegia, aurreko garaian hirigintza alorreko boteredunak bakan batzuk baino ez zirenean nagusi izandako erizpideak finkatu nahi izatea. Izan ere handik bi urtetara, Gorteek Zoru Legea onartzen dute eta honek gerra ondoren sortutako batzorde guztiak baliogabetzen ditu. Orduan hasten den garaia hobe ez bada, badela behintzat desberdina esan daiteke, gehiago banatzen duelako boterea eta ateak zabaltzen dizkiolako, Plana onartu eta sei urtetara, ez plana eta ez legea errespetatuko ez duen garapen eroaren "boom"ari. Honetaz, baina, planeamendu partziala deskribatzean jardungo gara.

1965. urtean, Setián Arkitektoak beste Plan Orokor bat erredaktatzeko ahaleginak egin zituen, baina hauek ez ziren ezertan gauzatu.

1974an, Udalak hasiera batez onartzen du **Lizancos Arkitektoak Plan Orokorra berraztertzeko erredaktatzen duen proiektua**. Plan hau 1956ko Zoru Legea indarrean dagoela hasten da erredaktatzen 1970ean Udalak egiten duen ikerketa-inkestatik abiatuta. Honen arabera, Pasaia biztanleak 24.636 izango ziren 1980an, industri garapena nabarmenki ari zen gora egiten eta portuak etorkizun baikorra iragartzen zuen.

Baina Portuaren hazkundea salbuetsita, goranzko joerari udalerriaren pentzutan ere eusten diona, itoztera iritsiz kasu askotan, hala 1970eko aurrikuspenak nola Legea bera aldatu egiten dira. 1976ko Apirilean, arlo guztien beharakada dakarren krisialdi ekonomikoa hortxe dagoela, Zoru Legearen Testu Bateratua ematen da argitara.

Erizpide garapenzaleen pean eraturiko plan honek Pasaian eskura dagoen zoru ia guztia jartzen du jokuan, hiri bezala benetan dituen arazoak eta bere testuingurua ahazmenduan utziaz.

**1978ko abenduaren 15ean, Lurralde Antolaketa eta Ingurugirorako Sailburuak ezezkua ematen dio** planari ondoko arrazoi hauek azalduz: Uliá Mendiaren Hego magala masifikatuegi dago eta zonaldearen panoramika hondatzen du; Donostia eta Pasaia portua elkarlotzeko goitik proiektatzen den bidea desegokia da proposatzen den planifikaziorako; Donibanen aurrikuspenen den industrialdea Jaizkibelgo errepidearen ertzean

kokatzeari ez deritzogu egoki, honen turismo izaera kontutan hartuta; San Pedro eta Donibane hiriguneen Barne-Erreformatarako Planak erredaktatzeko jarraipideak ez dira behar beste zehaztu; ur hornidura eta saneamendu arazoak ez dira erabaki; zoru ez urbanizagarria kontserbatu eta babesteko arau zehatzik ez dago. Gai hauek guztiak 1976ko Uztailen emandako lehen ezezkoan alegatuak zituen jada Arkitektura eta Hirigintza Batzorde Probintzialak.

### 5.3 1954KO PLAN OROKORRAREN BALORAZIOA.

Pasaiako planeamenduaren informazioari amaiera ematen dion puntu honetan informazio urbanistikoari buruzko IV. Liburukian jasota dagoen txostenaren V. eta VI. zatiak transkribatu dira oso-osorik, hots, "Balorazio Orokorra" eta "Ondorioak". Hauek "Planeamendua" izenburua daraman VII. Kapituluaren baitan aurkitzen dira "Planeamendu Orokorra" epigrafean sartuta, eta bertara jo daiteke informazioa zabaldu nahi izanez gero.

Orain arte burutu dugun azterketak hirigintza alorrean gaurregun Pasaian agintzen eta gidatzen duen esparrua negatiboki baloratzera garamatza ezinbestez.

Balorazio honi ahalik eta argitasun gehien ematearren, ondoko aspektu hauek azpimarra ditzakegu:

- A.- Pasaiako Plan Orokorra, udalerrri honetako antolaketa gidatzen duen giltzarria izanik, zaharkiturik gelditu da denboran. Bere hirigintza-ikusmoldeak, antigoalekoa gertatzeagatik, hutsala ez ezik kaltegarri ere gertatzen da geroko garapen urbanistikorako eta Pasaia osoaren birgaiketarako.

Plana ez da egokitu ez 1956ko Zoru Legeari ez eta 1976koari ere, azken honetako 1. Xedapen Iragakorrak halaxe agindu arren, eta hau eragozpen baino ez da izan Plana modu egokian exekutatzeko beharrezkoak ziren tresnak, lege horietan aurrikusitakoak, eduki zitzan.

Hirigintza kontuetan 1956ko Zoru Legearen aurretik eta honen ondoren agintzen zuen filosofia zeharo bestelakoa da. Pasaiako Plan Orokorra, aipatu Legea baino lehen onartua, zaharkitua gelditu da denboran, eta gaurko egunean hilda dagoen tresna dela esan daiteke, erreala baino gehiago balio formala duelarik.

- B.- Berdeguneen planoaren errefusatzeko Auzitegi Gorenak emandako argudioen artean hauxe diotenak merezi du nabarmendua izatea, Udalak ez zuela erabili bere unean haren baliagarritasuna defendatzeko erabil zezakeen tresna, desjabetzapena alegia.

Jada eskasa den edukinari berdeguneen planoaren bezain dokumentu garrantzitsua kentzen badiogu, Planaren edukina eskasa ez ezik Pasaiako garapen urbanistikoaren kontrako eragina duela ere ikusten dugu, zeren plano hori gabe utziz gero, ez berdegunerik, ez aisiarako lekurik, ez lorategirik ez duen herri bat bihurtzen baitugu Pasaia, eta hala gertatzen ari da berez. Zonaketa-planoan hainbat zona berezi kalifikatzen direla egia bada ere -8. ordenantza-, bai eta bertan udal espazio libreak ezar daitezkeela ere, ez dago ezer, Ordenantza horren konfigurazioa ikusita, zonalde horietan eraikitzea galeraz dezakeenik interes orokor, publiko edo antzekoren bat aldarrikatzen bada, eta hau ez da batere zaila izan.

Jokaera hori etengabe eman izan dela uste dugu; eraikuntzak nonnahi agertu diren bitartean, berdeguneak, zonarik aldapatsuenetara zokoratuak, erlikia huts bihurtu dira.

- C.- Baina Udalak berdeguneen planoaren baliagarritasuna behar bezala ez defenditzeaz gainera, behin eta



## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

berriz hautsi egin du hirigintzaren arau funtsezkoenatariko bat, alegia, "Planek derrigortasuna dutela bai administrazioarentzat eta bai partikularrentzat".

Pasaiako Plan Orokorren bitartez aurrikusten zen hiriak antzik ere ez du gaurko errealitatearekin.

Zentzu honetan, berdeguneen planoari baliagarritasuna ukatzen zaion moduan, zonaketa-planoaren baliorik eza ere eman behar dugu aditzera, asko baitira bete gabe dituen aspektuak, eta horrexegatik diogu aspalditik hilda dagoen tresna dela.

D.- Aurreko puntuan esandakoarekin zuzenean lotuaz, hona hemen zenbait aspektu Plan Orokorrean aurrikusitako antolaketa- eta gaurko Pasaia-arteko ezadostasunak nabarmenerazten dituztenak:

- Plan Orokorren puntu deigarrietako bat Escario izenaz ezaguna den autopista da. Aspaldian baztertu zen proiektua bada ere, Plan Orokorrek mantendu egiten du oraindik autopistaren eraikuntza, denbora guzti honetan ez delako aldaketa-ekimenik izan.

Izatez, bestelako erabilerak ezarri egin dira zona berezi bezala kalifikatzen zen autopistaren terrenoan: etxebizitzak, industri-erabilerak, e.a...

- Plan Partzialek kasu askotan aldatu dute Plan Orokorren zonaketa, muzin eginez horrela planen arteko hierarkia-printzioari, zeinaren arabera Plan Partzialek beti jarraitu behar baitituzte eta bete Plan Orokorren zehaztapenak.
  - Pasaia-arteko Plan Orokorrek ez du udalerrira bere osoan besarkatzen, eta hortxe dugu, adibidez, nola Azkuene poligonoa Plan Orokorretik kanpo gelditu den, eta bizitegi-erabilera bat ezarri zaion besterik gabe.
  - Lehen aipatu ditugun Ordenantzak sarri askotan izan dira hautsiak baimendutakoa gainditzen zuten bolumenak eraikitzean.
  - Udalerrira ekintza urbanistikoa gidatuko zuen erizpide orokorrik ez egoteak, eta exekuzio-tresnarik, aktuazio-egitaraurik eta abar ez izateak, bide eman du kasuan-kasuko interes pribatuak Pasaia-arteko interes orokorren gainetik nagusitu daitezela.
- Guzti horren adierazgarri, Udal ikuspegitik egin behar zen baina egin ez den banaketa poligonalaren falta da, ikuspuntu partikular eta pribatua gailendu baita azkenean exekuzio zeharo puntualak direla medio.
- Pasaia-arteko arnasarik non hartu ez duen herri mordoilotsua izateaz gainera, Plan Orokorretik ikusita ezinezkoa gertatzen da hain beharrezkoak diren elementu horiek sortzea.

E.- Plan Orokorren osteko araudiari dagokionez, zalantza berberak daude bere baliagarritasunaz. Pasaia-arteko Eraikuntza-Ordenantzei dagokienez, esana utzi dugu dagoeneko haien balio legalik eza (Zerbitzu Teknikoetarako Batzorde Probintzialak 1959ko apirilaren 3an emandako Diktamina).

Gainontzeko arautegiak, Udal Korporazioak behin onarturik, prozedura azaleko eta bizi-tuan onartu ere, Batzorde Probintzialari igorri zitzaizkion honek ere onartuz. 32. artikulua hautsi izana, edo hobe esanda, bertan ezartzen den prozedura bete ez izana, nabarmena da, ez baita egon ez jendaurreko erakustaldirik ez eta behin behineko onarpenik ere.

**Ondorioak**

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

Ororen gainetik garbi utzi nahi dugu 1954. urtean onartutako Plan Orokorrek Pasaia hirigintzaren tresna arautzaile bakarra jarraitzen duela izaten gauregun. Bidezko prozedurari jarraituz izan zen onartua, eta ez du inolako aldaketarik izan. Onartu zen egunean bezala dago gaur indarrean<sup>6</sup>.

Tresna honen balioa beste ezertan baino gehiago formaltasun huts batean gelditzen da hala ere. Izan ere, bere kontzeptio urbanistikoa iragan garaietakoa izatea, 1956ko Zoru Legeak aurrenik eta 1976koak gero<sup>7</sup> hirigintzari buruz duten ikuspegira egokitua ez izatea, tresna honen aurrean Administrazioak eta partikularrek axolagabekeria erakustea, bere aspektuetako asko exekutatu gabe egotea, eta abarrek, bide ematen digu aurrean dugun tresna hau hilik dagoela eta berau berpiztea alferrikakoaz gain zentzugabea litzatekeela baieztatzeko.

Egun dagoen bezala uzteak areagotu baino ez luke egingo gaurko egoera zail eta kaotikoa.

Pasaia hirigintza arautuko duen tresna berri bat idazteko lana premiazkoa ez ezik atzeraezina ere gertatzen da. Zeregin hau luzatzeak ondorio kontrolaezin eta pentsaezinak ekar litzake.

Zeregin horri hasiera emanez, hementxe aurkezten dugu Txosten Urbanistiko hau, Arau Subsidiarioen idazketaren lehen urrats gisara. Lan honetan Pasaia gaurko errealitatearen alderdi guzti-guztiak hartu behar ditugu kontutan, baina Portuaren presentzia era berezian azpimarratuz, errealitate horretan oinarritzakoa ez ezik elementu baldintzarri ere baita.

#### **5.4 PLANEAMENDU PARTZIALA PLAN OROKORRARREN GARAPEN GISA.**

Planeamendurako eredu desberdinen artean, behin betiko onarpenaren momentutik exekutibitatea bermatuta uzten duen Menpekotasun eta Hierarkia printzipioa egon arren, lege-haustek etengabeak izan dira Pasaian. Plan Orokorren zehaztapenak ez betetzea Plan Partzial baten bitartez garatu diren zonalde guztietara hedatu da, bai eta plan hauek erredaktatu ez ziren haietara ere.

Pasaian, izan ere, erraz ikus dezakegu Plan Partzial bat beharrezkoa zuten lekuetan, Antxon adibidez, ez dela halakorik egon, eta Plan Partzialak beste leku batzuetan erredaktatu eta onartu direnean, Trintxerpen eta Donibanen kasu, erizpide desberdin eta kontrajarriekin egin dela Plan Orokorra etengabe hautsiz.

Honek egoera guztiz asaldagarria eragin du gaur, bi aspektuetan isladatua gehienbat: eraikuntza mailako espektatibak azkeneraino eraman dira ez buru ez hankarik gabeko errealitatea sortuz, eta interes publiko eta kolektiboak bigarren mailan utzi dira bide-azpiegiturak, espazio libreak, zerbitzu publiko nahiz kulturalak eta abar bezalako aspektuak terreno kasu askotan desegokietara eramanez edo, besterik gabe, enoratuz.

Baina aipatu ditugun oinarritzako printzipio horien hausketa Plan Partzialen zehaztapenen exekuzioan ere antzematen da. Behar bezala izapidetu ez diren aldaketak, Urbanizazio-Proiektuen gehiegikeriak, edo akordio puntualak dira, besteak beste, egoera kaotiko bat ongarritu dutenak eta jarraiko protagonistak izan dituztenak prozesu horretan, hala nola, urbanizaziorik eza, egindako urbanizazioen kalitate eskasa, lagapen falta, titulartasun nahasiak, ordenazioz kanpoko egoerarekiko hausketak, baimenduak ez ziren bolumen gehiketak, ezarritako erabileren aldaketak, e.a...

Ondorio gisa, eta garapen planeamenduari heldu aurretik, panorama honek lege aldetik gaudituezina den errealitate baten aurrean jartzen gaituela esan beharra dago, baliogabetu beharko liratekeen supostuak anitzak direlarik.

Hainbeste dira antzeman ditugun irregulatasunak eta hain larriak, non zalantza izpirik gabe esan daitekeen hirigintza arloan dagoen lege-esparrua ahula ez ezik, okerra eta arriskutsua ere dela, eta horrexegatik ekin behar diogula berehala hirigintza arloko lege esparru berri bat osatzeari, 1992ko Zoru Legearen Testu Bateratura egokitua, udalerraren "eraberriketa", "birgaiketa" eta "berriztaketa" bideragarri izan dadin.

<sup>6</sup> □ Azken urteotan bi aldaketa egin dira, Arrandegi kalea eta Bordalaborda zona ukituz.

<sup>7</sup> □ Gaur 1992ko Zoru Legea.

**5.4.1 Garapen planeamendua eta aldaketak.****SAN PEDRO - TRINTXERPE****1.- ETXEBIZITZA INSTITUTO NAZIONALAREN PLAN PARTZIALA. AZKUENE.**

- \* Datak.
  - Ez Planaren administrazio-espedientea ezta dokumentua ere ez dira aurkitu ahal izan.
- \* Komentarioa.
  - Kalifikatu gabeko zorua dakar.
  - Aurrikusitako bide-sarea ez da exekutatzen.
  - Antolaketa kaotikoa.
  - Aurrikusitako profilak aldatzen ditu (bospasei solairu gehiago).
  - Lagapenak eta ekipamendu aurrikuspenak ez dira ezagutzen.

**2.- PABLO-ENEA 1 ETA 2 POLIGONOETAKO PLAN PARTZIALAK.**

- \* Datak.
  - 1 poligonoko Plan Partzialaren behin betiko onarpena: 1963ko Apirilaren 26an.
  - 2 poligonoko Plan Partzialaren behin betiko onarpena: 1965eko Irailaren 26an.
- \* Komentarioa.
  - Bolumen gehiegi programatzen du.
  - Dentsitate haundiegia (115 etxeb./Ha.)
  - Ez du berdegunetarako lagapenik egiten.
  - Ekonomi eta finantza azterketak ez du Zoru Legea betetzen.
  - Zoru libreek titulartasun pribatuari eusten diote jabekidetasun erregimenpean.

**3.- AZKUENE KALEAREN AMAIERAKO PLAN PARTZIALA (San Salvador).**

- \* Datak.
  - Plan Partzialaren behin betiko onarpena: 1965eko abenduaren 20ean.
  - Urbanizazio Proiektuaren behin betiko onarpena: 1966ko urriaren 21ean.
  - Kudeaketa Proiektuaren behin betiko onarpen datarik ez dago.
- \* Komentarioa.
  - Plan Orokorrek kalifikatzen ez dituen terrenoetan mugarrizten da.

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

- Berdegune eta ekipamendu zonen lagapenak terrenorik aldapatsuenetan kokatzen ditu.
- Etxebizitza dentsitatea ikaragarri handia da (135 etxeb./Ha.).
- Etapa Egitarauak eta Ekonomi eta Finantza Azterketak ez zuten Zoru Legea betetzen.
- Eskola multzoa ez da sekula ere eraiki.

## 4.- TRINTXERPE AUZOKO ESKOLALDEAREN PLAN PARTZIALA.

## \* Datak.

- Plan Partzialaren behin betiko onarpena: 1965eko azaroaren 19an.
- Urbanizazio eta Kudeaketa proiektuen datarik ez dago.

## \* Komentarioa.

- Ez dator bat Plan Orokorren kalifikazio globalarekin.
- Ordenazioz kanpo utzitako eraikinak ez ziren sekula desjabetu eta eraitsi.

## 5.- ZAMATETE EDO VELASCO-SALINASko PLAN PARTZIALA.

## \* Datak.

- Plan Partzialaren behin betiko onarpena: 1966ko Urriaren 21ean.
- Plan Partzialaren txosten osagarriaren behin betiko onarpena: 1967ko Otsailaren 3an.
- Plan Partziala aldatzeko behin betiko onarpena (1 blokea): 1967ko Azaroaren 24an.
- Urbanizazio Proiektuaren behin betiko onarpena: 1970eko Uztailaren 22an.
- Kudeaketa Proiekturik egin izanaren berri ez dago.

## \* Komentarioa.

- Plan Orokorrek kalifikatzen dituen berdeguneekin ezadostasunak daude.
- Gehiegizko eraikigarritasuna.
- Parke eta lorategien lagapena ez da aurrikusten.
- Exekuzioak ez du Plan Partzialaren bide-eskema jarraitzen.
- Ordenazioz kanpo utzitako erakinak ez dira eraitsi.

## 6.- INMOBILIARIA TRINTXER-ren PLAN PARTZIALA.

## \* Datak.

- Plan Partzialaren behin betiko onarpena: 1969ko Maiatzaren 2an.
- Urbanizazio eta Kudeaketa Proiektuen onarpen datarik ez dago.

## \* Komentarioa.

- Ez dator bat Plan Orokorren zonaketarekin.
- Ezarri beharreko bolumena gehiegizkoa da.
- Programatutako lagapenen islada grafikorik ez dago.
- Behar ziren tramiteak jarraitu ez zituen aldaketa bat egin zen exekuzio fasean.

## 7.- BORDA-ENEAKO PLAN PARTZIALA.

## \* Datak.

- Plan Partzialaren behin betiko onarpena: 1969ko Maiatzaren 30ean.

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

- Plan Partziala aldatzeko behin betiko onarpena: 1975eko Otsailaren 26an.
- Urbanizazio Proiektuaren behin betiko onarpena: 1972ko Urriaren 30ean.
- Kudeaketa Proiekturik egin izanaren berririk ez dago.

\* Komentarioa.

- Ez dator bat Plan Orokorren zonaketarekin.
- Ezarri beharreko bolumena gehiegizkoa da.
- Aparkaleku kopurua urria da.
- Urbanizazioak ez zuen harrerarik izan.
- Zona libreen titulartasuna ez dago garbi.

## 8.- MARTIMUNOKO PLAN PARTZIALA.

\* Datak.

- Plan Partzialaren behin betiko onarpena: 1969ko Maiatzaren 16an (exekutagarritasunik gabe).
- Urbanizazio proiektuaren behin betiko onarpena: 1971ko Irailaren 7an.

\* Komentarioa.

- Jardin-hiriari buruzko ordenantza berezia ez du bete.
- Ez dator bat Plan Orokorren bide-antolaketarekin.
- Lagapenik ez dago.
- Eraikigarritasunaren konputoa ez dago ondo egina.
- Bideen behin betiko harrera falta da.

## 9.- PASAIKO PLAN OROKORRAREN ELEMENTUEN ALDAKETA ARRANDEGI KALEAREN SEKTORE BATEAN TRINTXERPEN.

\* Datak.

- Aldaketaren behin betiko onarpena: 1990eko Urriaren 30ean.

\* Komentarioa.

- Escarioren autopistarako zoru erreserba aldatu eta ezabatzen du.
- Barne-Erreformatarako Plan Berezi batek hobetu eta egokitu beharko du area hau.
- Hori-zoru bezala sailkatzen du.
- Bizitegi bezala kalifikatzen du.
- Berdegune eta espazio libreak aurrirakusten ditu.
- Zonaldearen ordenantzak ordeztu ditu.

## 10.- ARRANDEGI KALEAREN 15 eta 29 ZKIEN ARTEKO BARNE-ERREFORMARAKO PLAN BEREZIA.

\* Datak.

- Plan Bereziaren behin betiko onarpena: 1990eko Abuztuaren 21ean.
- Kudeaketa eta Urbanizazio Proiektuak ez dira erredaktatu.

\* Komentarioa.

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

- Kudeaketa eta exekuzio epeak ez dira bete.
- Arrandegi kalea haunditu eta hobetzen du.
- Ihardueren kontrolari heltzen dio.
- Etxebizitza gehiago eskaintzen du eta espazio libreak hobetzen.

## 11.- ARRANDEGI KALEAREN 4 eta 8 ZKIEN ARTEKO BARNE-ERREFORMARAKO PLAN BEREZIA.

## \* Datak.

- Plan Bereziaren behin betiko onarpena: 1990eko Urriaren 30ean.
- Kudeaketa eta urbanizazio proiektuak ez dira oraindik erredaktatu.

## \* Komentarioa.

- Kudeaketa eta exekuzio epeak ez dira bete.
- Arrandegi kalea haunditu eta hobetzen du.
- Bertako industri sarea ordezkatzeko du.
- Ihardueren kontrolari heltzen dio.
- Etxebizitza eta aparkaleku gehiago eskaintzen ditu.
- Ibilgailu eta oinezkoentzat irekitzen da Gudarien Plazarantz.

## 12.- PASAI AKO HIRI-ORDENAZIORAKO PLAN OROKORRAREN ELEMENTUEN ALDAKETA TOKI-ALAI AREAN.

## \* Datak.

- Aldaketarako dokumentuaren hasierako onarpena: 1993ko Irailaren 6an.
- Aldaketarako dokumentuaren behin behineko onarpena: 1993ko Azaroaren 29an.
- Behin betiko onarpenaren zain dago.

## \* Komentarioa.

- Arau Subsidiarioen dokumentu honek osorik jaso du Proiektua.
- Bide-egitura hobetzen du.
- Espazio libre eta parke berriak sortzen ditu.
- Etxebizitza eta aparkaleku eskaintza aurriztatu du.

## 13.- PASAI AKO PLAN OROKORRAREN ELEMENTUEN ALDAKETA PASAI SAN PEDROKO ILLUNBE BASERRIAN.

## \* Datak.

- Aldaketaren hasierako onarpena: 1992ko Urriaren 26an.
- Aldaketaren behin behineko onarpena: 1993ko martxoaren 29an.
- Behin betiko onarpenaren zain dago.

## \* Komentarioa.

- Arau Subsidiarioen dokumentu honek osorik jaso du Proiektua.
- Illunbe Baserria finkatu du.

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

- Eraikinaren iharduerak eta eraberriketa erregulatzen du.
- Ingurunea berrurbanizatzen du.

**DONIBANE**

## 14.- BORDAUNDIKO PLAN PARTZIALA (C Sektorea)

- \* Datak.
  - Plan Partzialaren behin betiko onarpena: 1965eko abenduaren 20ean.
  - Urbanizazio proiektuaren behin betiko onarpena: 1967ko apirilaren 14ean.
- \* Komentarioa.
  - Ez dator bat Plan Orokorraren zonaketarekin.
  - Bolumen gehiegi ezartzen du etxebizitza kopurua nabarmenki areagotzean.
  - Dentsitate handia.
  - Ez da zona librean titulartasuna zehazten.

## 15.- ETXEBIZITZA INSTITUTOAREN PLAN PARTZIALA. DONIBANE

- \* Datak.
  - Ez Planaren administrazio-espeditatea eta ez bere dokumentazioa ez dira aurkitu ahal izan.
- \* Komentarioa.
  - Ez dator bat Plan Orokorraren zonaketarekin.
  - Ez dator bat Plan Orokorraren bide-antolaketarekin.
  - Ez da zonalde hauen ordenantzetara egokitzen.
  - Gehiegizko eraikigarritasuna programatzen da.
  - Irigarritasun arazoei ez zaie konponbiderik ematen.

## 16.- PASAI DONIBANEKO ESKOLALDEAREN PLAN PARTZIALA.

- \* Datak.
  - Plan Partzialaren behin betiko onarpena: 1969ko Maiatzaren 30ean.
  - Urbanizazio eta Kudeaketa Proiektuen behin betiko onarpen datarik ez dago.
- \* Komentarioa.
  - Poligonoan sartzen diren terrenoetako batzuk ez datoz bat Plan Orokorraren zonaketarekin.
  - Berdegune publikoan merkatal lokalak eraiki dira.
  - Urbanizazioa amaitu gabe dago eta kalitate txarrekoa da.

## 17.- PASAIKO BORDALABORDAN H.O.P.O.-aren ELEMENTUEN ALDAKETA, ARAU OSAGARRIAK.

- \* Datak.
  - Aldaketaren behin betiko onarpena: 1993ko Urtarrilaren 26an.

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

- \* Komentarioa.
  - Bordialaborda eremua eta portu instalazioak modernizatu eta zabaltzen ditu.
  - Espazio libreak ber kualifikatu eta sortzen ditu.
  - Bide-egitura hobetzen du.
  - Etxebizitza eta aparkaleku eskaintza sortzen du.
  - Portu-hiria erlazioari tratamendu berria ematen dio.

**ANTXO**

## 18.- ETXADI BATEN PLAN PARTZIALA ANTXOKO BARRUTIAN (Viteri Plaza, Zumardia).

- \* Datak.
  - Plan Partzialaren behin betiko onarpena: 1965eko Irailaren 24an.
  - Urbanizazio edo Kudeaketa Proiektuak egin izanaren berririk ez dago.
- \* Komentarioa.
  - Antxoko barrutian dagoen ekipamendu zonalde bakarra antolatzen du.
  - Afekzio eta aktuazioak planteatzen ditu poligonoan sartu ez diren terrenoetan.
  - Plana erredaktatu zen urtean zegoen egoeran dago gaur ere, ez baita bere zehaztapenetako bat bera ere exekutatu.

## 19.- ETXADI BAT ERAIKITZEKO AZTERLANA PASAI ANTXON (Zumardia, Hamarretxeta, Oarso, Gelasio Aranburu).

- \* Datak.
  - Behin behineko onarpena: 1955eko Abuztuaren 22an,
  - Ez zen inoiz behin betikoz onartu.
- \* Komentarioa.
  - Zumardia hiri-espazio zentral gisara eratzen da.
  - Lerrokadura berriak ematen ditu.
  - Ez zen inoiz aurrera eraman.

## 20.- HIRIGUNEAN ETXADI BATEN ERABILERA ALDATZEA (Axular Plaza).

- \* Datak.
  - Aldaketaren behin betiko onarpena: 1968ko Maiatzaren 15ean.
- \* Komentarioa.
  - Baimendutakoa baino altuera haundiagoak onartzean ez zen Plan Orokorren ordenantzei lotu.
  - Osorik exekutatu da, baina ez dakigu aurrikusitako lagapenak egin ziren ala ez.



## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

## 21.- ETXADI BATEN BARNE-ERREFORMARAKO PLAN BEREZIA (Katuen etxadia).

- \* Datak.
  - Planaren behin betiko onarpena: 1965eko Urtarrilaren 26an.
  - C.C.U.-k errekurtsio bat ontzat hartu eta gero baliorik gabe utzi zuen onarpen hori 1965eko Maiatzaren 30eko erabaki baten bidez.
- \* Komentarioa.
  - Plana jabeetako batek sustatu zuen besteen onespena jaso gabe.
  - Etxadia definitu gabe dago gaurregun, eta bertako eraikuntza hasierako egoeran aurkitzen da.

## 22.- ETXADI BAT ANTOLATZEKO PLANA (Gure Zumardia, Eskalantegi, Oarso, Hamarretxeta)

- \* Datak.
  - Planaren behin betiko onarpena: 1971ko Martxoaren 9an.
- \* Komentarioa.
  - Plan Orokorrean aurrikusitako ordenantzak ez dira betetzen.
  - Ez du etxebizitza kopururik edo eraikuntza-hondorik ezartzen.
  - Bere osoan exekutatu da.

## 23.- ETXADIKO LERROKADUREI BURUZKO PLANA (Oarso, Eskalantegi, Hamarretxeta).

- \* Datak.
  - Planaren behin betiko onarpena: 1977ko abenduaren 22an.
- \* Komentarioa.
  - Ez du zehaztapenik ematen, kotei buruzko plano bat salbu.
  - Alakak eta hondo eraikigarriak ezartzen ditu.
  - Etxadiak mazizaturik daude gaur.

**PORTUA**

## 24.- PASAIKO PORTUKO ZERBITZU-ZONAREN ANTOLAKETARAKO PLAN BEREZIA.

- \* Dagoeneko Aurrerapena erredaktatu da, 1994ko Urtarril eta Otsailean jendaurrean jarri zelarik.

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

**6.-LURZORU ERABILEREN ANALISI OROKORRA.**

Zati honetan Pasaian garatu diren zoru-erabilerei buruzko eskemaren diagnostiko laburra egingo dugu. Hirigintza alorreko Informazioaren dokumentuan eta Aurrerapenean sakonki aztertua izan denez, bertara jotzea aholkatzen dugu informazioa zabaldu nahi izanez gero.

Esandako dokumentu horietan egin diren estatistika eta balorazioek eguneratua ez den informazioa izan dezaketelakoan, interesgarri jotzen dugu, gure balorazioari ekin aurretik, bere bilakaera propioa izan duen aspektu bat hemen aipatzea, etxebizitzarena alegia.

Pasaia 5.250 etxebizitza zituen 1970. urtean, eta 1991an 6.500 ziren zentsatutakoak. Hazkundera 1.250 etxebizitzakoa izan da guztira (%23,8), urteko bataz bestekoa 62,5 etxebizitzakoa izan delarik (II-6.1 Taula).

**ETXEBIZITZA KOPURUAREN BILAKAERA BARRUTIZ BARRUTI****II-6.1 TAULA**

	1970	1981	1991
DONIBANE	808	956	960
TRINTXERPE-SAN PEDRO	2.916	3.645	3.659
ANTXO	1.526	1.748	1.881
GUZTIRA	5.250	6.379	6.500

**Iturria: Zentsuak.****Geuk egina.**

Baina hazkundera hori, uniformea izan beharrean, aski desorekatua gertatu da 70eko hamarkadaren alde. 1970 eta 1981 urte bitartean 1.129 etxebizitza irabazi zituen, baina hurrengo hamarkadan, jada aztertua dugun jaiste demografikoaren aldiarekin bat eginez, behera dator kopuru hori eta 151 etxebizitza baino ez dira eraikitzen.

Barrutiz barruti, Donibane eta Trintxerpe-San Pedro ditugu hamarkada horien artean desorekarik handiena azaltzen dutenak; hurrenez hurren 148 eta 877 etxebizitza eraikitzen dira 1970 eta 1981 urte bitartean, eta 80ko hamarkadan, berriz 4 eta 14 baino ez. Antxok bigarren hamarkadaren beherakada nabaritzen badu ere, eutsi egiten dio eraikuntza erritmoari eta 133 etxebizitza berri eraikitzen ditu 80ko hamarkada horretan, aurrekoan baino 90 gutxiago soil-soilik.

Gertaera honek, arrazoi ekonomiko, sozial edo laboralen ondorioz etorria ziurrenik, garrantzi handia izan dezake etorkizuneko hiria diseinatzerakoan. Beherakada hori, izan ere, baliteke hazkundera eta garapen eroran murgildutako hirigintza amaitzearen seinale izatea eta agerian jartzea aldi berean hasia dela dagoeneko etxebizitza-merkatu bat ondasun ekonomiko errentagarri bat bilatzeagatik eta babestu beharreko ondare kultural eta historiko bat edukitzeagatik ondoko ezaugarri hauek nagusi dituenak: zoruaren erabilera austeroa batetik, eta jada eraikita dagoen bilbe urbanoaren errebalorizazioa bestetik. Eraikuntzak hiri-bilbe hondatuen berrizaketan eta eraikitako ondarearen birgaiketan jarriko du indar gehiena, hiriak beharrezkoa duen berrekipamendua ahaztu gabe.

## Testu Bategina

---

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

**6.1 PORTUA.**

Hirigintza alorrean Pasaia jarraitu duen prozesuari buruz balorazio bat egiterakoan Portua funtsezko elementu bezala ageri zaigu, eta ez soilik hiru barrutiak fisikoki elkarlotzen dituen elementua izateagatik, baita lehen mailako eragile ekonomikoa gertatzeagatik ere, udalerriko zoru-erabileretan izan duen eraginak, balorazio bereizgarriak sartu dituelako segun sektore nagusia arrantza, merkataritza edo industria zen, garbi asko erakusten duenez.

Gaurko edozein planeamendu estrategia gidatu behar duen funtsezko erizpidea portu eremua beste lurralde eremu bat bezala ikusi behar dela da, legeak udal administrazioari ematen dion antolaketa-ahalmenaren menpe jarria beti.

Menpe jartze horrekin, baina, ez da morrontza-harreman bat ezarri nahi, baizik eta harreman dialektiko bat behar diren irtenbide espazialak kasu bakoitzean ahalbideratuko dituen, portuaren interesak eta udalerraren interes sozio-ekonomikoak uztartuz eta bizi-kalitatea beti lehentasuneko helburu jarritz.

Hiri planeamendu eta kudeaketatik begiratuta, ekintza guztiek ahaleginak egin behar dituzte herritarrak errazago irits daitezela itsasora, eta hau egin daiteke bai modu zuzenean, berdegune edo plazen bitartez Bordialaborden kasuan, nahiz mugak ezabatuz eta erabilerak konpatibilizatuz San Pedron, bai eta zeharkako moduan ere, Antxoren kasuan adibidez, ekipamendu edo komunikazioetarako espazio erreserbak sortuz.

Hiri planeamendu eta kudeaketak, bestalde, erabileren bateragarritasuna ziurtatu behar du portuko mugetatik bi aldeetara, erabilitako zoruaren errentagarritasun sozioekonomikoa hobetuz beti. Hartara planteatuko diren ekintzak hiri-bilbea berronertzera zuzenduko dira, eta ihardueren balorazioa bat ere erantsiko da horien kutsagarritasuna, enplegu-sorrera eta portu barruko kokapen bereziak kontutan hartuta.

**6.2 KOMUNIKAZIO SISTEMA - BIDESAREA.**

Pasaia Eskualde Sistemaren baitan kokaturik egoteak, portu-konfigurazioa edukitzeak eta topografia konplexu batera egokitu behar izateak, besteak beste, bidesare heterogeneo eta korapilatsua eragin dute, irisgarritasuna nabarmenki zailduz horren ondorioz, eta herriko zonalde ezberdinen arteko komunikazio arina eragotziz.

Portua, berez, hiru barrutiak fisikoki elkarlotzen dituen elementu gisara agertzen bada ere, izatez gehien isolatzen duena da bere iharduerarekin zer ikusirik ez duten oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa galeraztean.

N-1 errepidea hiru barrutien arteko konektore garrantzitsuena bihurtu arren, hainbestekoa da, estatuko eta nazioarte mailako trafiko-bide bihurtzearen ondorioz, bertan pilotzen diren garraio mota nahasketa non, ezinezkoa baita Irun-Donostia korridorea osatzen duten udalerrietarako irisgarritasuna modu egokian ziurtatzea, eta Pasaia lotzen bagatzaizkio, Antxoko barrutian zaildu ez ezik galerazi ere egiten du irisgarritasun hori zirkulazio norabidearen arabera, udalerraren gainontzekotik ere isolatzen duelarik (trenbideak eta portuak bezalaxe).

Aurretik zegoen planeamenduak, eta topografia baldintzetara nahiz lehenagoko bilbe urbanoetara gutxi egokitutako urbanizazio-ezaugarriek, osatu gabe dagoen hiri-sarea sortarazi dute (Bordaundin, Bordialabordan eta Trintxerpen batipat), oso trazadura txarrekoa, aparkalekutan guztiz urria, eta gaizki dimentsionatua eta kontserbatua.

Bide sistemari buruz egin dugun diagnostiko labur honen aurrean, hauetxek dira proposatzen diren planeamendu erizpide eta estrategiak:

- a) Bide-sistema hierarkizatzea, erlaziorako espazio publiko bezala bideek duten funtzionaltasuna eta dimentsionamendua kontutan izanik eta hiri-bilbearen irisgarritasunaren mesedetan egiten duten zerbitzua ikusiz.
- b) Bidesarearen galtzada eta oinezko esparruei eman beharreko tratamendu eta dimentsionamendua aztertzea irisgarritasuna beti ziurtatuz eta, ahal dela, peatonalizazioari eta harreman leku izateari lehentasuna emanaz.

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

- c) Portua, Trenbidea, N-1 Errepidea eta "Topoa" bezalako Udalaz gaindiko azpiegiturak zein bere kokapen urbanoaren ezaugarriekin konpatibilizatzeko eman beharreko soluzioetan eskualde eta erregio mailako administrazioa barneratzea.

**6.3 INDUSTRI ASENTAMENDUAK.**

Pasaiaiko Udalerriari bere gaurko konfigurazioa eman dion prozesu hiritartzailea beti egon da iharduera produktiboen menpe. Horren ondorioz hortxe dauzkagu hiri-bilbean sakabanaturik hainbat industri txiki nahiz iharduera isolatu, industri asentamenduzat jo ezin badaitezke ere, kontutan hartzekoak direnak erabilera bateragarri eta ordenazioari buruzko ordenantzak idazterakoan.

Industrialdeztat ondoko hauek baino ezin dira definitu beraz:

**PORTUA:**

- Kaien zonaketa ihardueren arabera.
- Herrera eta konponketa lanen kaia.
- Bordalaborda eta Untziolak.
- Askorreta Untziola.

**DONIBANE:**

- Bordalaborda.

**ANTXO:**

- Antxoko Industri Poligonoa.

Area hauetako bakoitzaren planeamendu erizpideak **zoruaren ahalik eta errentagarritasun sozioekonomikorik haundiena eta enplegu eta bizitokiaren arteko oreka** bilatuko du.

Gaurko instalazio zaharkituek ezinbestekoak dituzten barne-erreforma prozesuak sustatu egingo dira, autopistatik eta N-1 errepidetik iristeko arazoei helduz eta poligonoen gaurko azpiegitura-dotazio espazialak hobetuz.

Antxoko Industri Poligonoari dagokionez, inguruan duen hiri-bilbeak asumitu ezin dezakeen industrialde bat izanik, beste toki batzuetan (Donostia eta Erreterian) sortzen ari den zoru industrialean kokatzeko posibilitatea aintzat hartuaz planteatu behar da bere soluzioa.

Modu berezian aztertu beharrekoa Askorreta Untziolaren gaurko kokapena da, inolaz ere ez baitator bat Ondartxo pasealekuak egokiago hartuko lukeen erabilerarekin, jolas eta aisialdiko espazio librearen erabilerarekin hain zuzen.

**6.4 EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK.**

Pasaiaiko udalerrian ekipamendu eta espazio libreei dagokienez egin dezakegun balorazioa guztiz negatiboa da, bere egoera zeharo defizitarioa gertatzen baita legeak erizten dituen estandarrekin alderatuz gero.

Arazo hau antzeko garapena izan duten udalerrietan ere eman da, inertziak edo; baina hauetan inbertsio haundiak egin baldin badira zorua erosi eta norbaitek jada exekutatu izan beharko zukeen urbanizazioa exekutatzeko, Pasaiairen kasuan, non premiazko berrekipamendu politika bat aurrera eramateko zoru gabezia erabatekoa den, arazoa bereziki areagotzen da.

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

Probetxamendu urbanoa izan zezaketen zoruen okupazioa hain izan da aseegin eta kaotikoa, eta hain itzela biztanleria eta ekipamenduaren arteko desoreka, non arazoa epe ertainera konpondu daitekeen ere ez dago esaterik. Hainbat premia modu nolabait autonomoz funtzionatzen duten barrutietan barreiaturik daudela kontutan hartuz gero, badira ekipamendu batzuk, zona libreak eta berdeguneak kasu, gutxienez bikoiztu edo hirukoiztuak izatea exijitzen dutenak.

Proposatzen diren planeamendu estrategia eta erizpideek udal mugak gainditzera jo behar dute goiko administrazioak nahiz inguruko udalerriak berrekipamendu amankomunaren prozesuan inplikatur.

Lurzoru eta inmiebleak erosteko politikarekin jarraitzea eta, aldi berean, portuko espazio libreetako erabileren bateragarritasuna negoziatzea guztiz garrantzitsua izango da.

**6.5 ETXEBIZITZA.**

Etxebizitzak Pasaian duen arazoa ulertu nahi badugu eskualdea ekarri behar dugu berriz ere izpidera.

Ezin diogu-ta analisi honi hasiera eman kontutan hartzen ez badugu Pasaiako udalerrria Donostia eta Errenteriaren arteko jarraipen urbanoaren barruan kokatuta dagoela eta agertzen zaizkigun arazoetako asko udalerrian ez baizik eta hiriburuan edo eskualdearen osotasunean sortzen direla, eman beharreko konponbideak udal planeamendutik baino harantzagoetik etorri behar duela ezinbestekoa delarik horregatik.

Gure posibilitateekin eskaini ditzakegun irtenbideak txikiak izanik, eskualde mailako soluzioekin laguntzen ez badira ez dute beti emaitza egokirik izango.

Arlo honetan proposatzen ditugun planeamendu estrategia eta erizpideak hauetxek dira:

- Inguruko udalerrietan bultzatzen diren etxebizitza sustapenak Pasaitarren eskura jartzea baldintza berdinetan.
- Gaurko etxebizitzak birgaitzeko prozesuak abian jartzea gune historikoak kontsolidatu eta, behar diren neurriak erabiltzen ez badira epe ez oso luzera trakestuko diren etxebizitzaren baldintzak hobetzeko, beti ere esfortzu ekonomiko eta austero bat eginez zoruan.
- Azkenik esan bai birgaiketa lanekin, bai eraberriketa lanekin, bai eta etxebizitza berriekin, guztira 800 eta 1000 etxebizitza inguru egon litekezkeela merkatu inmobiliarioan planeamendu orokorra eta berezia garatzen diren urteetan.

Kopuru horretan sartzen diren etxebizitza berriak bilbe urbanoaren sutura lanen ondorioz eta gune andeatua edo bere erabileragatik ez asumigarria ordezkatzetik datozela jotzen da.

**6.6 INGURUGIROA.**

Hiri-hondakinen eta agente kutsagarrien ezabaketa eta kontrolean, eskualdeak edo arazoari aurre egiteko sortzen den udalerrien mankomunitateak izan beharko dute horien planeamendu eta gestiorako eremu egokia.

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

Sinisturik ezen zoruen, uraren eta airearen kutsadurak ez dituela udal muga administratiboak ezagutzen eta, uste izanik bestalde, saneamenduaren konponbideak ezinbesteko egiten duela hain eskasak diren baliabideak, ekonomikoak nahiz lurzorukoak (zabortegi, biltegi edo araztegiak ezartzeko) ahalik eta errentagarritasun haundienaz administratzea, udal planeamendu eta gestio urbanistikoaren ikuspegitik ez dago zalantzarik balorazioek eta irtenbideen apurtazioek eskualde mailakoak izan behar dutela.

Ingurugiro alorrean kontutan hartzekoak diren erizpide orokorrak ondoko puntu hauetan laburbildu daitezke:

- Baliabide naturalak ez dira industri garapenaren eta hazkunde ekonomikoaren zerbitzura egongo, hiritarren bizi-kalitatearen zerbitzura baizik.

Honek industri garapena oztopatu baino gehiago, oreka egoeran jarri nahi ditu espazioaren errentagarritasun ekonomikoa eta berreskurapen eta mantenimendurako duen gaitasuna, gizarte osoaren zerbitzura dagoen baliabide naturala baita espazio hori.

- Ingurugiro gaietan tokian tokiko ur gazi eta gezen masak berroneratzera eta egurtsa kutsatzen duten agenteen kontrola bermatzera zuzenduko dira ekimen guztiak.
- Planeamenduak ingurugirorako estrategiak eta udal zoruaren sailkapen eta kalifikazioa koordinatu beharko ditu udalerrian kokagarri diren iharduerek behar den erantzuna izan dezaten ur zikinen tratamenduan eta hondakin solidoen ezabaketan.

## **6.7 LANDA-LURRA.**

Landa eremuari buruz egin daitekeen balorazioa zeharo negatiboa da. Eta negatiboa da hala paisaiaren perspektiba integraletik ikusita, sistema produktiboak desagertu direlako eta luraren jabetza eta ustiaketa eskemarik egokienak aldatu direlako, nola landa-lurrean bateratzen diren aldagai guztiak (zoruak, landaretza, nekazaritza eta abeltzantza erabilerak, e.a.) modu xehekatuan aztertuz gero.

Planeamendu erizpideek iharduera produktibo "optimoen" (ez soilik ekonomikoen) euskailu bat ikusi behar dute landa-lurrean, beronen kontserbazio eta balioa beti ziurtatuz.

Balizko aisialdi erabilera intentsiboak errekonozitu eta mugarritu beharko dira lurraldean, iharduera produktibo landatarren ustezko ezarpenarekin bateragarri eginez.

Lurzorua erosteko politika mantendu eta indartu egingo da.

**7.- DIAGNOSTIKOA.****7.1 LURRALDEA**

- 1.- Hala fisikoki nola funtzionalki, Pasaiako udalerria eskualde mailako ingurune batean aurkitzen da kokaturik (Oarsoaldea, Donostialdea), eta berau gabe ezin da ez errealtate sozioekonomiko eta urbanistikoa aztertu, ez eta bere etorkizuna diseinatu ere.
- 2.- Etxebizitza eta biztanleria dentsitatea ikaragarri handia da Pasaian, eta bide-eskemaren irrazionaltasunak eta espazio librearen eskasiak areago larriagotzen dute egoera.
- 3.- Udalerraren ezaugarri topografikoak direla eta, lurraldeak ez du urbanizazio baldintza egokietan kolonizatzeko moduko zorurik ageri.
- 4.- Udalerrari atxekitzen diren gainazaleko urak kutsaturik daude oso, eta premiazko saneamendu bat exijitzen dute.
- 5.- Ezaugarri topografiko eta klimatikoak atmosferaren barreatze-ahalmenaren aurkako eragile direnez gero, ezinbesteko egiten da arreta handia erabiltzea ke, hauts edo beste edozein substantzia kutsagarri jariatzeko arriskurik duten ihardueren kokapen eta kontrolean.
- 6.- Pasaiako udalerririk oso poblamendu trinkoa ageri du, eta area urbanoek udalerriko azaleraren %5,3 baino ez dute hartzen.

**7.2 DEMOGRAFIA**

- 7.- Pasaiako errealtate soziourbanistikoa harreman estu-estuan dago 50 eta 70eko hamarkada bitartean nozitutako hazkunde zentzugabearekin, populazioa orduan iritsi baitzen kopururik gorenera, bai eta orduan hasi ere gaurko beherakada aldiaren inflesio puntua.
- 8.- "Inmigrazio pilatsua-emigrazio hautatua" deitu dezakegun prozesuak, distantzia luze nahiz laburrak korrituz, baldintzatu egiten du populazioaren osaketa. Banaka batzuen egungo sorterriratzearekin batera, birbanaketa prozesu bat dago eskualdean eta erregioan zehar.
- 9.- Biztanleriaren egiturak jaiokuntza tasaren beherakada ezagutu du, azken urteotan berezko hazkunde negatiboa ematera iritsi delarik. Pasaiako biztanleria, eskualdekoa bezalaxe, zahartze prozesuan dago bete-betean, eta bere eboluzioa distantzia luze eta laburreko migrazioek baldintzatu dezakete etorkizunean. Heldu gazteen taldea (20-44 urte bitartekoa) heldu zaharren taldea (44-64 urte bitartekoak) baino haundixeagoa da oraindik.
- 10.- Pasaiako dinamika demografikoak biztanleriaren bolumenaren jaiste bat iragartzen du antzadenez; halabaina, udalerria Donostialdearen barruan eta, bereziki, Donostia-Errenteria jarraipen urbanoaren baitan kokatzea baldintzakizun izango da etorkizun demografikoa etxebizitza eta berrekipamendu alorreko udal politikak betetzearen menpe egon dadin.

**7.3 BIZTANLERIA ETA AKTIBITATEA**

- 11.- Azken urteotako migrazio-prozesuak aktibitate tasa nabarmenki igoarazi arren, ez du horrekin aktiboaren kopuruaren benetako hazkunderik eragin. Aktibitate tasa %34,56koa zen 1981ean, eta %41,3koa

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

- 1991an, eta aktiboen kopuru absolutoak, berriz, %5,8ko igoera baino ez zuen izan (400 pertsona hortxe hantxe).
- 12.- Aktibitate tasaren bilakaera honetan haxe behar da azpimarratu, emakumearen lan merkaturatzeak bilakaera guztiz positiboa duen bitartean (1.000 bat emakume aktibo gehiago 1981 eta 1991 urte bitartean), gizonezkoek 600 bat pertsona okupatu galdu dituztela epealdi berean, oso bilakaera negatiboa erakutsiz. Emakumearen bilakaera positibo horren aurrean, desorekari eusten zaiola eta langabezi indizerik haundiena emakumezkoetan ematen dela azpimarkatu beharra dago.
- 13.- Pasaiaik Donostialdea osoaren bataz bestekoa baino langabezi tasa askoz haundiagoa izan du azken urteotan (%31,20 1986an, eta %23,7 1991an). 86-91 bosturtekoaren berreskuratze aldiaren ondoren, lanpostuen galera berri bat etorri da 1993. urtean hasitako krisi gogorak eraginda (langabetuen kopuruak %17ko igoera gordina izan du 1991ko martxotik 1994ko otsailera arte).
- 14.- Sexuen arabera, emakumezkoen aurkako desoreka nabarmena da. 1991an %33,04ko langabezi tasa espeziifikoa zuten, gizonezkoena %18,83koa zen bitartean.
- 15.- Pasaian lehen enplegua bilatzen zutenen %48,5ak eskolaurreko eta lehen mailako ikasketak baino ez zituen oraindik, gaurko lan merkatuari begira egoera aski ahul batean geratzen direlarik.
- 16.- 80ko hamarkadan biztanleria aktiboaren egitura aldatu zen Pasaian. 60 eta 70eko hamarkadetako garapenean tradizionalak ziren sektoreak (arrantza eta industria) alboratu eta merkataritza, administrazioa eta pertsona nahiz enpresentzako zerbitzuen sektoreetara jotzen da.
- Populazio aktiboaren sektore-aldaketa hori ez zen krisian zeuden sektoreen lepotik gertatu, lan merkaturatze berriekin baizik, eta honek langabezi estrukturalako poltsa haundi eta birmoldagaitza sortarazi du.
- 17.- Berregituraketa hori gorabehera, eta giza potentzialaren ikuspegitik begiratuta, arrantza eta industri sektoreek udalerrriaren funtsezko giltzarri jarraitzen dute izaten, eskualdean zerbitzuen sektorea nagusi den bitartean.
- 18.- 1991. urtera arte, emakumea gizonezkoekin batera joan zen lan merkaturatze horiek lehia nabarmenean sartu gabe. Emakumearen lan merkaturatze hori hazkunde haundieneko zerbitzuen sektoreetan eman da gehienik, gizonezkoek bere-bereak izan dituzten sektoreak, hala nola, lehen sektorea, bigarren sektore industrialia, eta garraioetakoak, ia ukitu ez dituztelarik.
- 19.- Pasaiaiko lan eskuak Donostialdea osorako ere hedagarria den disfuntzio garrantzitsu bat ageri du; izan ere, azken urteotako motore ekonomikoa izan den eta garapen bizian aurkitzen den sektoreak (Zerbitzuetakoak) langabezi tasarik haundiena bereganatzen du, krisian eta birmoldaketa bortitzean dauden sektoreak, arrantza eta metalen eraldakuntza kasu, gaunditzera ere iritsiz.
- 20.- Azken hiru urteotan (91-94), untzigintza eta untzien konponketari emanak zeuden hainbat enpresa garrantzitsuk itxi behar izan dute, eta beste batzuk krisi gorrian daude eta ez dute etorkizun garbirik. Gertaera hau ezinbestekotzat jotzen da Pasaiaiko geroko garapenean oinarritzko sektorea izango denaren berdimentsionamendu eraginkorra lortzeko.
- 21.- 8. eta 9. sektoreei lotuta dauden zerbitzu espezializatuek hazkunde arin bat izatea espero da, eskualdearen joerarekin bat etorriz. Garapen itzela ez duela izango uste arren, izan dezakeen bilakaera guztiz susmagaitza da.
- 22.- Merkatal sektorean familia izaerako merkataritza txikia nagusitzen da, non bataz beste 2,2 pertsona dauden establezimenduko eta besteren kontuan diharduten langileak 0,7 diren autonomo bakoitzeko. Baliteke



## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

errentagarritasunari ez baizik subsistentziari lehentasuna ematen dion merkatal eredu bat izatea hau, sektorearen garapen arrazionala baino gehiago autoenpleguaren babes bilatzen duena.

- 23.- Pasaiako eredu ekonomikoa transizio prozesuan dago gaurregun, eredu industrial zahar batetik, atzeraka eta berdimentsionatzen doan egitura produktiboa erakusgarri duela, zerbitzu-sektore indartsu batean oinarritzen den eta oraindik definitu gabe dagoen eredu tertziario baterantz igarotzen ari baita.
- 24.- Donostialdeako biztanleria aktibo okupatuaren %40 eta %60 bitarteko kopuruak (udalerrien arabera), bizi den herria ez beste batean egiten du lan, joan-etorri etengabeak sortuz egunero bizilekutik lantokiraino. Pasaiari dagokionez, populazio aktibo okupatuaren %53,2ak lan egiten du bere udalerritik kanpo.

**7.4 PASAIKO PLANGINTZA URBANISTIKOA**

- 25.- Plangintza, 1950. urtera arte, eraikintzaren antolatze huts bat egitera mugatzen zen. Gisa honetako proiektuetan ohi zenez, erabilerak eta ekipamendu publikoak ez ziren kontutan hartzen, eta ekimen publikoak izaten zen terrenoak erosi eta urbanizazioa exekutuz zuzena.
- 26.- 1950. urtera arteko ordenantzak hankamotz eta osagabe gelditzen ziren, baina ez zitzaion inoiz berauek egokitzeari era serioan heldu. Ez dute Pasaiako problematika urbanoaren ikuspen osorik eskaintzen, eta arazoak unean uneko eta tokian tokiko konponbideen eskutan uzten dira.
- 27.- 1954ko Plan Orokorra lurzoru urbanoa trukerako ondasuna delako filosofia berria indarrean dela erredaktatzen da. Honekin batera zoru eta etxebizitza sustapen publiko eta pribatuak agertzen dira.
- 28.- 1954ko Plan Orokorra, udalerrira modu integral eta orekatuan antolatu beharrean, Pasaiarekin zer ikusirik ez eta Donostia, Erregio eta Estatuari berari onuragarriagoak zitzaizkien azpiegiturazko elementuetan jartzen zuten lehentasuna.
- 29.- Portuak udalerraren arazoaren gainetik hartzen zuten nagusitasuna udalaz gaindiko interes orokorretan oinarritua. Planean jasota dagoen filosofia hau ondorio kaltegarriekin iritsi da guganaino eta argi eta garbi markatu ditu Portu-Hiria arteko harreman gatazkatsuak.
- 30.- Udal kontrol guztietatik kanpo aurkitzen zen azpiegitura-sistema programatzen zuten Planak, proiektu bereziak idazteko egitaraurik edo, behintzat, horien beharkizunik inondik ere ezartzen ez zuela.
- 31.- Programatutako berdeguneak urriak eta guztiz eskaxak izateaz gainera, zonalde ezegokietan kokatzen ziren, eta honek balio publiko oro deuseztatzen zuten.
- 32.- Plan Orokorrean egiten zen zonaketak ez zuten zehaztasunik ematen, eta ordenantzak zuzenean eta eraginkorki aplikatzea galazten zuten.
- 33.- Plan Orokorra, txarra bere hartan ere, behin eta berriz izan da hautsia garapen planeamenduan (plan partzialak, bereziak, e.a....), gaizki izapideturiko aldatetetan, eta inolako kontrolik izan ez duten aktuazioetan.
- 34.- Ordenantzak ere behin eta berriz hautsi dira, bolumenak baimendutakoaren gainetik kontsolidatzean eta diseinatutako zonaldearekin bateragarriak ez diren erabilerak eta eraikuntzak finkatzean.
- 35.- 1980ko hamarkadaren bukaerara arte udalerraren ekintza urbanistikoa gidatuko zuten erizpide orokorrik ez egoteak, eta exekuzio eta kudeaketarako tresnarik ez izateak bide eman du kasuan-kasuko interes pribatuak

## Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENADOC. "A" MEMORIA

Pasaiako interes orokorren gaintik nagusitu daitezten.

**7.5 LURZORUAREN ERABILERAK**

- 36.- Portua funtsezko elementua da udalerraren lurralde egituran, eta balio estrategiko handia du Pasaiko etorkizunean.
- 37.- Portu-Hiria erlazioaren gatazkak etengabeak izan dira azken mendean zehar, eta zonalde askotan itsasoari eta portuari berari bizkarra emanda bizitza eragin dute.
- 38.- Azken urteotan portuaren garapen ekonomiko eta industrialari eman zaio lehentasuna eta udalerrientzat onuragarria izan zitekeen antolaketa orekatua, baita ingurugiro mailakoa ere, baztertu da.
- 39.- Bide-sarea korapilatsua eta osatugabea da, herriko zonalde desberdinetarako irisgarritasuna nabarmenki zailduz.
- 40.- Komunikazio azpiegitura haundiak erregioaren zerbitzura diseinatu dira, udalerriak berak dauzkan premiak eta beharrianak aintzat hartu gabe.
- 41.- Etxebizitza-bilbe urbanoan zehar, edo honen ondoan ere, badira oraindik hainbat gune industrial arazo larrien sortzaile direnak eta kasu askotan bizi-kalitatea nabarmenki jaitsiarazten dutenak.
- 42.- Pasaiako industrialdeek itxura guztiz hondatua agertzen dute. Industrien ezarpena gainbehera dator garbiro eta, zenbait kasutan, ez dago berroneratzeko inolako posibilitaterik komunikazio egokiak falta direlako eta ingurugiro mailan behar besteko baldintzak ematen ez direlako.
- 43.- Ekipamendu eta espazio libreen mailan Pasaia zeharo gabeturik agertzen da, legeriak eta giza-duintasunak eskatzen dituzten minimoetara iristen ez delarik.
- 44.- Zuzkidura publikoen falta hori bereziki areagotzen da lurzoru eskasiarekin eta berrekipatzearen kostu ekonomiko itzelarekin.
- 45.- Pasaiak agortuta dauzka dagoeneko lurzoru urbanoa haunditzeko posibilitateak.
- 46.- Garapen urbanoaren zer-nolakoak eta etxebizitzaren aspaldikotasunak birgaiketa eta berriztaketa urbanorako berarizko tratamenduak luze gabe abian jartzea egiten dute gomendagarri.
- 47.- Udalerraren dentsifikazio handia eta area zein iharduera industrialen sakabanatze eta ezegokitasunak ingurune urbano andeatu bat eragin dute. Bizitegi-zonetako zarata, araztu gabeko ur zikinen isurketak, ke eta hautsen jariapena, eta abarrek, Pasaia bizitzeko udalerrri erakargarri ez izatea ekarri dute ondorioz.
- 48.- Betidaniko sistema produktiboaren desagerpena eta erabilera urbanoen kupida gabeko inbasioa udalerraren landa zonen andeapen azkar eta bizia ekartzen ari dira.

**8.- HELBURU URBANISTIKOEN ESKEMA.**

Testu Bategina

"A" DOK.- TXOSTENA

DOC. "A" MEMORIA

DIAGNOSTIKOA	HELBURUAK
<b>LURRALDEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskualde mailako aktuzioetan integratu eta horiekin koordinatzea.</li> <li>- Egungo espazio libreak birkualifikatzea.</li> <li>- Espazio libre berriak sortzea.</li> <li>- Hiriko periferia ez urbanoa birkualifikatzea.</li> <li>- Egungo lurzoru urbanora mugatutako aktuzioei ekitea.</li> <li>- Lurzoru urbanizagarriak ez sailkatzea.</li> <li>- Zentzuzko saneamendu eredu bat ezartzea.</li> <li>- Molinao Itsasadarra eta Badia berroneratzea.</li> <li>- Kostaldea babestea.</li> <li>- Industri guneak kontrolatzea.</li> <li>- Kutsagarrien jarioak kontrolatzea.</li> <li>- Asumigarriak ez diren industrialdeak definitzea.</li> <li>- Landa ingurunerako irisgarritasuna irekitzea.</li> </ul>
<b>DEMOGRAFIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskualde eta erregio mailako politiketan integratu eta haiekin koordinatzea.</li> <li>- Ekipamendu publiko orokorrak, eta bereziki laguntza alorrekoak, hobetzea.</li> <li>- Etxebizitza asentamendu berriak erraztea eskualdearen birbanaketa kontutan hartuta</li> <li>- Populazio talde jakin batzuei zuzendutako etxebizitza egitaraua garatzea (erdi mailako familiak, hirugarren adina, gazteak, e.a.)</li> </ul>
<b>BIZTANLERIA ETA AKTIBITATEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskualde mailako politiketan integratu eta haiekin koordinatzea.</li> <li>- Ekipamenduak (prestakuntza, trebaketa, berziklaketa, e.a..) hobetu eta programatzea.</li> <li>- Enakumearren lan merkaturatzea erraztuko duten ekipamendu zehatzak programatzea (prestakuntzarako, asistentziarako, e.a.)</li> <li>- Industrialdeak berdimentsionatu eta berdefinitzea.</li> <li>- Portu eremu desberdinen funtzionaltasuna berdefinitzea.</li> <li>- Udalerriaren espazio ekonomikoa oneratuko duten iharduerak bilatzea.</li> <li>- Etxebizitza-sare urbanoarekin ahalik eta bateragarritasun handiena ziurtatzea.</li> <li>- Kokapen industrialak eskualdearen esparruan bilatzea.</li> <li>- Zerbitzu Sektoreetako zonaldeei garapen artasua ematea.</li> <li>- Eskualdearen bide-sarea hierarkizatu eta hobetzea.</li> <li>- Pasaia barruko trafikoa berrantolatzea.</li> <li>- Garraio publikoaren ibilbideak berdefinitzea.</li> <li>- Harmen haundiko garraio sistemen irisgarritasuna hobetzea (topoa, autobusak, Renfea).</li> <li>- Lurpeko aparkalekuak egitea.</li> </ul>
<b>PLANGINTZA URBANOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Planeamendu integral bat egitea, lurraldearen alde guztien arteko oreka bilatuz.</li> <li>- Eskualdearen antolaketa berdintasun eta oreka erregimenean burutzea inguruko udalerriek.</li> <li>- Arau Subsidiarioek udalerririk baruko beste espazio bat bezala hartuko dute portu eremua, ezaugarri ekonomiko eta urbanistiko bereziki, baina gainontzeko udal eremuekin elkartasunean beti.</li> <li>- Egun dauden eta etorkizunean programatzen diren komunikazio azpiegitura handiek udalerrira eskualdean osorik integratzea ziurtatu beharko dute, ingurugiroari eta hiriri ahalik eta kosturik txikiena ekarritz.</li> <li>- Pasaia errealitate urbanoak udalerrien espazio sozialari duintasuna emateko ahaleginaren beharra azpimarkatzen du.</li> <li>- Hirigintza mailan heredatutakoak programazio irmo baina malgua eskatzen du eguneroko garapenean eta oso zurrina erdi eta epe luzeko garapenean. Eszena urbanoaren berrekupamendu eta hobetze helburuak luzaezinak dira.</li> </ul>
<b>LURZORUAREN ERABILERAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskualde mailako aktuzioetan integratu eta horiekin koordinatzea.</li> <li>- Herritarrek errazago iristea itsasora.</li> <li>- Hiri eta portuko erabileren bateragarritasuna erraztea.</li> <li>- Portua hiriaren berrekupamenduan inplikatzea.</li> <li>- Bide-sistema hierarkizatzea.</li> <li>- Oinezko zirkuitoak sortzea.</li> <li>- Udalaz gaindiko instalazioak eta komunikazio azpiegituren erabilerak hobetzea.</li> <li>- Asumigarriak ez diren gune eta erabilera industrialak definitzea.</li> <li>- Industria kokatu eta garatzeko eskualde mailako politikan integratzea.</li> <li>- Hiriaren berrekupamenduan udalaz gaindiko administrazioak inplikatzea premiatasun handiz.</li> <li>- Birgaiketa integratuko eremuak definitzea.</li> <li>- Berrizaketa urbanorako egitaraua definitzea.</li> <li>- Eskualde mailako etxebizitza politiketan integratzea.</li> <li>- Etxebizitza sustapena berrekupamendu urbanorako erabiltzea.</li> <li>- Ingurugiroaren kontrol zorrotza egitea herritarren bizi-kalitatearen onerako.</li> <li>- Lurrazaleko ur-ibilguak berroneratzea, badia barne.</li> <li>- Landa ingurunean bere kontserbazio eta balioa ziurtatuko duten iharduera produktibo "egoki"en ezarpena bultzatzea.</li> <li>- Aisialdirako zonaldeak mugarritu eta kontrolatzea landa ingurunea errespetatuz.</li> </ul>